

ԱՆՎԱԿԵ

ԳԱԶԻ-ԳԱԶԱԿ

Իրիւնի  
ստի

2

“Abeletxe”

# Gazi-gazak

Txindoki-sorta 2



318

TXINDOKI-SORTA 2



“ A B E L E T X E “

*Ziarsolo'tar Manu*

# GAZI - GAZAK

EDILI

Guetaria, 21 - bajo

SAN SEBASTIAN

Andrea sartu zan denda artan da galdetu :

—Emen... epetan, plasoetan saltzen al dozue?

—Bai, andrea ; gañera epe luzetan.

—Orduan... emoiztazu neure aurtxoarentzat, alako kotxetxu bat.

Emon eutsen.

Andrea azkenengo epea ordaintzera yoan zanean, galdetu eutson dendariak :

—Da? Zelan dabil, ba, umetxo ori?

—¡Oondo baño obeto ! Atzo ezkondu zan.

\* \* \*

¡Oorrrá ba ! Beste aldrebeskeri bat !

Nik uste neban eta zuek be or orren baten, Yainkoak gizona sortu ebala lenengo, erpil batetik, eta ondoren, onen saietsetik, emakumea.

Ortantxe be oker ei gabiltz, lengunean adiskide batek esan eustanez.

Lenengo, emakumea sortu ei eban. Eta gauza txukunagorik ez eitekeala asmau, ikusi ondoren, amaitutzat laga Bere lana.

Baña gerotxoago konturatu ei zan, izate txukun ori ondo zaindu, ondo gorde ta gastu guztiak ordainduko eutsozan lagun bat bear ebala, ta... orduan, orduan sortu ei eban gizona.

Nere adiskideak, adarra yoaz esan baeustan ori, ez-takit, baña egia ete danaren antza badauala, ezin ukatu.

\* \* \*

Orraitio urrengo au Bergara'n yazoa zala esan eustan nere adiskideak :

Enrique Noarbe napartarrak, zapateria yarri ei eban, bere izen-abizenak ate-buruan dotore ezarriaz.

Amak, amar urteko alabatxoa bialdu ei eban zapata billa, denda artara.

Laizter itxuli zan neskatua zapata bage, dendea itxita egoala esanaz.

Amak :

—Arratsaldeko hostak izan eta dendea itxita? ¡Esa-tea be!

—Egia da ba, amatxo. Itxita dago. Ta gañera, ikusi nai badozu, letrerua yarri dau adiraziaz : ENRIQUE NO ABRE.

¡Je!

\* \* \*

Galiziar batek ames-egin eban, Santiago Apostolua-gaz egoala izketan.

—Nai al dozak amar milla ogerleko? —esaten eutson santuak, diru-papel pilla erakutsiaz—.

—Baai yauna, baai!

—Zelan nai dozak, urretan ala papeletan?

—¡Uurretan!

—Itxoik apurtxo baten, kanbiatzera naioak-eta.

Onetan, itxartu zan galiziarra ta... esan :

—Oba naioan papeletan artu izan beneutsoz.

\* \* \*

Soraluxe'n, Plazentxian gertaurikoa ei dozu urrengo ori, ta orreik beti izan dabez ateraldi barregarriak.

Errekalde'k, naigaberen bat aztu nairik, bere burua ibaira botatzea erabagi eban. Igon ei zan zubi-ganera, ta buruz-bera ibaira plaust-egin, illunabar artan.

Agiri danez, igari ondo ekian eta bere burua itto-zorian ikusi ebanean, liorrera urten.

Bere asmo biurrean makal azaldu zala eretxirik, barriz igon zan zubi-ganera, ta ostera be bere burua ibaira bota. Baña barriro be urten zan uretatik.

Ganora orrek ez eutsola erresultaurik emoten da, soka bat artu, zaman lotu, yoan barriz zubi-ganera ta bertatik dindiliz yarri.

Urrengo goizean laister zabaldu zan errian, gizon bat urkatuta aurkitu ebela zubian. Eldu ziran agintariak. Jaso eben urkatua ta asi zan jueza bere asterketak egi-ten, testigu billa, izigarri ori zelan izan ete zan yakiteko.

Maurixio auzokideak zubi inguruan yentea pillaturik ikustean galdetu eban :

—Zer paxatxen dok?

—Errekalde, urkatuta aurkitu dabiela, zubi-ganetik dindiliz.

—Ikusi najuan nik ori atzo illunabarrean soka bate-tik eskegiten! —erantzun eban auzokideak—.

Orduan juezak :

—Ta... zeuk ikusi ta parterik emon ez?

—Mela-mela eginda (ziatz buztita) etorri zan zubi-ganera ta... sikatzen plantau zala pentsau neban nik.

\* \* \*

Uri txiki baten neskatilla aberats bat bizi zan, alaba bakarra, askok emaztegaitzat begiz yota eukena. Aita ta ama bizi izan yakozan artean, iñor etzan ausartzen etxe atako atean ots-egiten. Umezurztu zanean barriz, batean atso bat, bestean gazteagoren bat, euren seme nai lobe a etxe atantxe nondik sartuko ebiltzan.

Neskatillea bera, ezkondu-gurarik ebillen, ezekian oster a senartzat zein artu ; ta goizean goizean elizara yoan ta Andra Mariaren altara-aurrean luzaro egon oi zan.

Sakristaua, atzo goizekoa izan ezarren, ezkongea zan ta ordurarte, ez bere buruz ez besteren hitartez, aberats orri bere gogoa ezeutsan erakutsi. Elizara ain sarri yoaten ikusita, poz-pozik burutasun azartu bat artu eban. Andra Mariaren ostean burua gordeta goiz askotan egon zan. Bein, goizetitxo elizaratuta, emaztegai aberats orrek,

sakristauak entzuteko eran, berba onetxek zuzendu eutsazan Andra Mariari :

—Ama, ama maitea : senargai on bat gura neuke, zeure gogoko bat.

—Sakristaua dozu, alabatxo, beste edozein baño ego-kiagoa.

Andra Mariaren gogoa zein zan baekiala ta pozik yoian neskatillea etxera. Egun atakoxe illuntzean emakume eldu batek sakristauaren etxean, aberatsaren ize-nean, ots egin eban.

—Austin, ¿ezkonduko zintzakez umezurtz aberatsa-gaz?

—Ni bai, badakizu gero : nik goian zerua ta bean sakristeia ta solotxo bat baino eztaukadaz : txiro-txiroa, ezeuki arlote bat nozu ni.

—Ez yaramon, Austin ; zeruko argitasuna izan dau. Zeugaz izan ezik beste iñogaz etxatzu a ezkonduko.

—Alan dala, zeruak gura dabena lurrean gerta bedi —esan eban—.

Illebete ta erdi baño lenago senar-emazte ziran.

\* \* \*

Errupioño'ri esan eutson osagilleak : Urdalla zula-tuta daukozu ta lenbailen osatebakuntzea egin bearra dozu, operasiñua.

—Lagaiztazuz egun batzuk erabagia artzeko —erantzun eutson gexoak—.

Etxeratu zanean, sendiarekin izan ebazan lenengo

eretriak. Oneik esan eutsen, beti miñez egotea baño oba eritxoela, zirt edo zart egitia.

Gero, bere lagunekana yoan zan, ta oneik be, antzeko zerbait esan eutsen. Eta euretariko batek, Ebaristo'k, berari be urdalleko osatebakuntzea egin eutsoelarik, adore geiago emoteko, gañeztu eutson :

—Ezeik izan bildurrik! Yoan eiteke nasai. Lenengo, mai-ganean yarriko abe luze-luze patxadaz. Sartuko daue besoan bape miñik barik alako indeziñotariko bat; eta bereala asiko dozak banan-banan lagun guztiak aienatzen, desaparezitzen, eure begien aurretik.

Osatebakuntzea amaitu ondoren, senera etortzen azanean, barriz asiko dozak eure lagun guztiak agertzen, orreik be banan-banan. ¡Ta egiña egin! ¡Agur biotzereak eta agur gazgatzak (bikarbonatuak)! Euk nai dokana yan eta euk nai dokana edanaz, bapo biziko az. ¡Kito urdalleko erre-minduak!

Adorez heterik yoan zan Errupiño gexotetxera, Ebaristo lagun ebala. Egin eutsen osatebakuntzea ta... “senera” biurtu zanean, esan eutson lenengo aurrean ikusi ebanari :

—¡Kaixio Ebaristo! Emen gozak!

Eta aurrean eukonak esan eutson :

—¡Ze Ebaristo ta Ebaristo ozte! Ni, San Pedro nok!

\* \* \*

Emeretzi urte daukoz mutillak. Beti izan da mutil ona, baño lagunak, zerbait traketsak.

Etixerako orduetan gaur berandu, biar beranduago, etzi oso berandu.

Aitak amari: “Berandutxo dabil gure mutilla, aspaldion”.

—¡Zeure erruz! —diño amak—. ¡Praka-nasai bat zaralako! Ikusten dozu mutillaren yokabidea ta... ¡zu ixilik! ¡Zelan Yaungoiko nai dozu umea arteztu daiten?

Orrenbestekin, aitak artu dau erabagia, semea bere senera biurtzeko.

Gau artan mutilla etxeratu zanean :

—Seme; amaitu dira zure ibillerak. Lagun txarre-kaz zabiltz eta ondatuko zara orretan yarraitzen badozu. ¡Badakizu zer esaten daben On Kelemente osagilleak? “Dime con quién andas y te diré quién eres”.

—Aita; ez orrenbeste. Erdal-esakun orreik eztabiltz ondo. Ara: Gure Elizbarrutiko Obispoaren txoperra, Obispoagaz ibiltzen da egunero, baño ezta Obispoa, txoperra baño.

\* \* \*

Pepita'k, alako txakurtxu uletsua erosi eban lenguan.

Iru egun barru an yoan zan txakur saltzallearengana bizi samar betozko illunagaz esanaz :

—Asarre nator!

—Zer dala-ta?

—Zuk auxe esan eustazun : Txakurtxuok 15 urte bi-zi izaten zirala.

—Ta alaxen da.

—Bai, e? Ba... zuk lengunean saldu zeustanak egun biren buruan luzatu eban ankea. Da emen ni, txakurrik barik.

—Orrek esan nai dau, zuk erosi zenduanean, txakurrak 15 urte, bi egun gutxiago eukozala.

\* \* \*

Anton'ek Koxe'ri.

—Lengunean irakurri nayuan, Izaro'ko ugartean txori andi bat arrapau ebela; gure lurraldietan ez ezaguna. Ta bere ankan erestun bat eroala izki ta zenbakiekin. Urrunetatik etorri ei zuan egazti ori.

Baita be irakurri nayuan, Orduña'n beste bat, au txikiagoa, arrapau ebela beste erastun batekin.

Zertarako yartzen yautsezak erestunok, egazti orrei?

—Nundik nora dabilizan yakiteko. Euri zetako yarri euela uste dok ba ezkondu intzanean, atzamarrean daroakan ori, "pajarua"?

\* \* \*

Amaika majaderok  
jatejok ogia;  
saman korbata ta  
poltsiko gorria.

Orixe abestuten yoian Ebaristo, ta orixe bera ya-

zoten yakon oingoan berari. Poltsikoak murrutzuta lauzikorik bage agertzen zan, korbatea gora-bera.

Txanton adiskidea ikusi ebanean poztu zan apur bat, ak zerbaitekin lagunduko eutsalakoan. Agurtu ondoren esan eutson:

—Bost ogerleko lagako al daustazak?

—Aldian etxaukot ba lamaikorik be.

—Eta etxean?

—Etxean danak ondo, Yaunari eskerrak.

\* \* \*

Antxiña Gernika'ko Batzar-Etxean, errietako alkatiak batzen ziranean, Mendexa'n alkate gizajoa ei egoan.

Mendexa erri txikitxua izanik, Erriko-Etxean diru gitxi. Ta Gernika'n bazkaria ordaindu bear zanean, ez-tu ibiltzen zan, beste errietako alkatiaren barre ta adar-joteak iruntsi bearrean. Egun batez, jatetxeko etxekandreak, errukiturik, ixillian ontzako urrea emon eutsan, bazkaria ordaintzen ebanean eskupekotzat emoteko esanaz.

Bazkaitako orduan Mendexa'ko alkatiari adarra jota naikua barre egin ondoren ordaintzeko sasoa eldu zanean, etxekandrea Mendexa'ko alkatiaren egoan lekutik asi zan kobretan, bere azpil zabala edo bandeja luzatuaz. Guztiak Mendexa'ko ordezkariaren larri-aldiari adi egozan irriparrez. Onak berea ordaindu ondoren, "Ori zeuretzat" esanaz, ontzako urrea laga eutson azpil-ganean.



Orduantxe izan ziran an kontuak! Antxe amaitu ziran barre-txikiak. Bata txixalarri, bestea makur-larri; baña oso gutxi urregarri.

Al ebanak, gutxiago ez izatearren, laga eban ontzaku; geienak buru-makur aldendu ziran.

Mendexa'ko alkatia barriz, odol-berritu bat lez joan zan errira, etxekandreak, bere oñtzakoa gorde ondoren emon eutsozan lau ontzakoegaz.

\* \* \*

—Entzixu Pedrotxu —dirautso emazteak senarrai—, zure adiskide Juantxu'k ;arek bai esaten dautsozala gauz politak andratxoari!: “Neure biotxeko udari urtsua”, “Neure begietako marrubia”, “Neure zorioneko mertxika” ta alako ainbat itz entzungarri, kilikagarri. ;Zuk ez-takizu alakorik esaten!

—Bai baña..., Juantxu, igali saltzallea, “fruterua” dozu. Orregaitik, ezta arritzeko, ark, bere bizibideko esakeratxoak erabiltea. Ni barriz, osakai saltzallea izanik, “botikarioa” nazalarik, zer erabili daiket “droga” orreikin? Zer atara daiket naste ortatik?

—Zure bizibideko gaiekaz be esan daitekez gauza politak —erantzun eutson emazteak—. Esaterako: “Nere jarabea”, “Nere aspirinea”, Nere kokainatxua” ta abar. Gai orreikin azaldu daikezu, zure leungarria nazala; zeure buruko-miñak kentzen dautzudazala; zeure zoramena nazala...

—Tiira ba! Aleginduko naz emetik aurrera, zerbait alako esaten ene “Esteetako bigungarri” orri.

“Carabaña” esan nai eutson.

¡Je!

\* \* \*

Auzokideak baeuken da, Koxepa'k be erosi nai izan eban alako tramankulua. Zorioneko “radio” bat. Ortarako dirutxua batu ebanean yuan zan dendara, ta erosi eban tayuzkoa.

Yarri eban. Piztu eban. Tramankulua asi zan barriketan. ¡Baña axe gauza bakana! Tautik ulertzen ez eban yarduna besterik ez eban egiten, sorginkeri arek.

Urrengo egunean, an yoan zan dendariarengana bere tramankulua besapean artun da.

—Entzun egizu, Pillipa —esan eutson andra dendariari— trukau bear daustazu tramankulu au. Atzo egun guztian piztuta euki neban eta tautik ulertzen ez dodan barriketea besterik ez eban egin.

—“Cortan” yarriko zendun da!

—Eeez! ;Kortan ez! Sukaldean!

\* \* \*

Koxanton'ek bere lanetarako, beorra eukan.

Goiz batez, txalma ta abar yarriaz, aberea lanerako gertatzen egoalarik, Koxanton'en amañarreba urreratu yaken.

Beste bage ta uste bage, beorrak yoten dau andrea ostikoz, ta bertan “siku” laga eban.

Urrengo egunean egin zan “entierrura” uste baño yendetza andiagoa eldu zan. Baña auxe arrigarria! Bat izan ezik, beste guztiak gizon ezkonduak ziran.

Eleizkizun ostean, an yoan ziran dan-danak suiñari eskua luzatu ta estututen. Ortan azkenengoa, ezkongaya izan zan.

Onek: “Samin-aldi ontan lagun nayatzu” —esan eutson—.

—Eskerrekasko biotzez —erantzun eutson Koxanton’ek—. Zu bakarrik bai zaitut laguntza ontan.

—Ni bakarrik? Besteak zer esan dautzue ba?

—Ia beorra saldu nai dodan.

\* \* \*

Irakurri dodanez, Ortuella’n, dendari arrautz-saltzalle batek, amairuko amabikoa emoten dau. Amairuko “dosenia”.

Andra-erosle batek, arriturik, galdetu ei eutson:

—Arrautzok, preskuak al dira?

—Ez. Preskuak otzakiña (frigorifico-edo) daukenak saltzen dabez. Guk, olloaren ipurditik-arakoak saltzen doguz; epel-epelak.

Orra erantzun polita.

Baña... amairuko amabikoa? Guk gaztetan prallien dosenia esaten geuntzon orreri. Zergaitik? Eztakit.

\* \* \*

Mutil lotsatiak esan eutson On Gerbasio’ri:

—Emen nator... zuri... zerbait esatera; zera... esan nai neuskitzuna da... nai neukela...

—Bai, gizona, bai! ortarako ezeik izan lotsarik; ezkondu eiteke beragaz.

—Zer diñozu? Ezkondu... noregaz?

—Neure alabeagaz, gizona! Pelisatxogaz. Ez al dok ori, ik nai dokana?

—Ba... gaur, ortara... ez nentorran ba. Nik... milla peseta emon dagitzazuzala... orixe nai neban, diru eskaz nabil-da.

—¿Miilla peseta? ¡Bai ta zera be! Zelan emongo dauadaz, ba, ezagutu be ozt-ozta eiten aut-eta!

\* \* \*

Uri ta errialde asko dira, euren ospea ortik edo emetik yatorkoenak. Uskeri batetik naiz anditasun batetik.

Urrunera yoaten bagara, an daukozuz Egipto’ko arri-metak; Paris’go Eiffiel dorrea; New Yor’ko etxe-tantayak eta abar.

Yanari ta edariak be izan oi dira errien ospegarri: Errusia’ko kabierra, Prantzia’ko Koñaka ta abar.

Urreratxoago etorri ezkerro barriz, gure albo-errian aurkitu daikezuz gauz oneik: Benidor’ko ondartzea, Villaconejos’ko meloyak, Soria’ko guriña, Palencia’ko mantak, Fuentesauco’ko garbantzuk, Aranjuez’ko mallukiak, Valencia’ko arroza (paella), Jabugo’ko urdai-azpikoa, Erriolja, Jerez, Aragoi ta abarreko ardoak.

Baña ortara yo ezkeru. Etxera etorri ezkeru, geuk be aitatu daikeguz zerik asko: Portugaleta ta Ormaiztegi'ko zubiak, Donostia'ko ordartzea, Tolosa'ko txapelak, Eibar'ko "eskopetak-bisikletak-josteko makiñak", Gazteiz'ko "neskato-mutiko" gozoak, Corrella'ko berakatzak, Orduña'ko perretxikoak, Markiña'ko kokotak, Mendaro'ko erroskillak, Mañari'ko kerixak, Bakio'ko txakoliña, Araba ta Naparroa'ko ardoak, Berriz'ko okellerreak, Ermu'ko lukainkak, Tolosa'ko babarrunak, Aginaga'ko angulak, Santurtze'ko sardiñak, Balmaseda'ko eskailluak, Bermeo'ko legatza, Idiazabal eta Gorbea'ko gaztayak, eta... "BILBOKO URA".

Bereziki laga dot azkenerako "UR" ori. Izkirimiri baida. 1914 garrenetik 18'ra bitartean irauñ eban gu dearen ondorenak sorturikoa. Donostin yaso ei zan.

Goazen ba :

Bilbon dirua arra-arra ebillan garai artan, Donostiko yatetxe baten, bilbotar talde batek afaldu eban. Afaria ordaindu ondoren, eurretarike batek ¡pla-pla! otsegin eta esan ei eutson morroyari: —"Aizak! ekarri zak orain "BILBOKO URA".

Yoan zan morroya billa. Laster itxuli zan esanaz: "Solares eta Sobron'ekoa izan ezik, ez degu beste urik".

—¡Giiizona...! Guk txampanari deitzen dautsogu Bilboko ura!

Atara eutsen eurrez "urori". Baita edan be. Ordaintzerakoan, "kontua" eskatu ebenean, morroyaren lekuan nagusia etorri ei yaken esanaz: Donostin ez ebela urik kobratzen eta yoan zeitezkelasai, etxera.

\* \* \*

Mutiko bi, ikastolako landan, yolas-orduan, alkarri muturrak berotzen ari ziran.

Irakaslea agertu zanean bakeak egin ebezan, baña onek bieri besotik oratuaz, diñotse :

—¡Ikastolara biok! Eta zigorrez, 500 aldiz idatzi bearko dozue zeuen abizena.

—Ezta eskubiderik ortarako! Bidebagekeri andia da —diñotso mutikoetariko batek—.

—Zer dala-ta dok bidebagekeria?

—Orren abizena Ea dalako ta nereea Gabikagogeaskoa.

\* \* \*

Senarrak emaztea makillatzen ebala-edo-ta, auzia zan Epai-Etxean.

Epaikariak, juezak, banan-banan, zutitu-azten euzan ziñaldariak, testiguak, itanduz :

—Zin-egiten al dozu, egia, egia-uts-utsa esango dozula?

—Zin egiten dot.

—Ezagutzen al dozu aulkian dagon gizon ori?

—Ezagutzen dot.

—Egia al da emaztea makillatzen daula?

—Ori mundu guztiak dakian zera da.

—Zeuk, ikusi al dozu iñoiz, yoten?

—Ikusi ez; entzun.

—Ikusi ezpadozu, exeri zaite zeure lekuan.

Besteekin be, galdera bardiñak, eta gitxi gora-bera, erantzun bardiñak ziran: Emazteari egunero autsak astintzen eutsozala senarrak.

—Baña... ikusi al dozu astintzen?

—Ikusi ez; entzun.

—Ba... ikusi ezpadozu, exeri zaite zeure lekuan.

Azkenengo testigua, atso zartxu bat izan zan.

Epaikariak:

—Zuk zer dakizu arazo onetzaz?

—Egi-egia dala, senar gaizto orrek egurra ataritzen dautsola egunero bere emazte gaxoari. Euren alboan bizi naz, eta egunero entzuten dodaz etxeko zalapart eta emakume errukiorraren negar eta intziriak. Basatia bear da izan, gizon izeneko orrek bere emaztearekin egiten dauna egiteko.

—Baña... ikusi al dozu zeuk, iñoiz, emaztea yoten?

—Ikusi ez, baña entzun bai!

—Ba... ikusi ezpadozu, exeri zaite zeure lekuan.

Exeritzerakoan, lotseak bultzata-edo, gibel-aize zaratatsua urten yakon atsotxuari. Alako tarratadtxoa.

Ori entzutean, epaikaria asarre bizian zutitu zan, toki areri begiramen geyago zor yakola ta an egoteko duin etzala esanaz.

—Baña... ni izan al naz? —itandu eutson atso-txuak—.

—Bai; zeuk yaurti dozu!

—Zeuk ikusi al dozu?

—Ikusi ez, baña entzun hai!

—Ba... ikusi ezpadozu, exeri zaite zeure lekuan!

\* \* \*

—Muutillak! —iñoan Kerolimo'k lagun artean—. Arramarra ederra izan yoat gaur, nere emazteagaz!

—Ta nok irabazi yok ba erronkea?

—Neuk, kontxo! Gogor asi dok baña makurtu da denganiñeza! Mutututa laga yoat.

—¡Ori dok ori Kerolimo! Gizon bat bayaukagu geure artean! Esaiguk: Yakin al leitekek zer esan dautsakan ori lortuteko?

—Auxe: “Beno! Amaitu dira kopla guztiak! ¡Erosi daikezu!”.

\* \* \*

An izan, or izan, naiz emen izan; noiz nai ta nun nai izan; soñeko prakak galtzea, itxusi da gizonarentzat. Itxusiago ondiño ezkon-ibillian galtzea. Eta ain justu be, ereti orretan galdu ebazan nere adiskide batek trenean.

Straperlua bizi-bizi ebillan garayan izan zan. Ezkon-ibillian egin oi diran tontokeri orreik Madrillen egin ondoren, bai etozan Bilborantz senar-emazte bariok.

Miranda'n, Bilboraño burdin-bidean sartzeko, bultziz aldatu ziranean yarlekurik ez eben aurkitu; pasi-

lloan lotu bear izan ziran. Baña au be beterik egoan arrautz-otsaraz, olio-poto, piper-lodi, babarrun ta irin-sakuz, abar eta abar, eta beste amazazpi abarrez.

Bultziak abiada artu ebanean, gure gizon-gaztea, irin-saku baten ganean exeri zan, egiñek orrek ezer okerrik ekarri egikeanik pentsau bage.

Egon-aldi baten ondoren zutitu zanean, emazteak eskubia bekokira eroan eban esanaz :

—Aitiaren da Semearen! Orreik prakak yarri dozu zana! Gerriraño zurituta zagoz!

Ipur-gaña plisti-plasta yo eutson eskuaz andreak, baña “azul-marinosko” eun eder artan sendo inkau zan uruna, ta ez egoan kentzerik.

—Yon zaite komunera, ta mosu-zapiatz ta ur apurtxoagaz kendu egizu —esan eutsan kurrukurunak—.

Yoan zan bakar-gelara. An, atze-aldea ondo ez ikusten, eta prakok erantsi ta astintzea bururatu yakon. Iriki eban leyoa. Beso biak luzatuz, asi zan astintzen. Mundu guztiari agurka ebillala irudian. Batek edo bestek erantzun be egin eutsen ala zalakoan.

Orretan, uste bako zugatz-igar baten adarrak ;kausk! egin eutson, ta an geratu ziran ene prakok adarretik dindiliz, buru bageko txorimalo baten antzo. Ta trenak, orduan da abiada andiagoa fi! fi! fi! intzirika txorimaluak uxatu izan baleu lez.

Igarri daikezuen lez, zurbil lotu zan gure gizona zugatz-lapurrari begira, areik-eta urrunean prakak aye-natu ziran arte.

Trena Bilbora urreratzen yoyan, eta gizona ez azaltzen. Zelan azalduko zan ta itxura aretan iñoren aurrean?

Yoan zan andrea hilla, zer gertatzen ete zan. Guk dakiguna yakin ebanean eta senarra gerritik-gora orren dotore, ta gerritik-bera orren itxusi ikustean, zazpi gurutzaterdi egin ebazan.

Orretan, Bilbora eldu zan trena. Zelan urten patxada artan andenera?

Andreak, bere jertzea soñetik kendu ta manga biekin korapilloa egin eutson gerrian; ta dana ezpazan be, belaunetaraño estaldu eutsozan lotsarik geyenak, eta alan urten eben, bernetako uleak agirian eroazan arren senar gizajoak.

Andenera urten ebeneko, andrearen adiskide bategaz topo egin eben, eta onek, arriturik, galdetu eutson ezkonberri adiskideari :

—Zorionak! Zelan zabilte?

—Ezton ikusten ala?

—Parkatu egin. Ez nekiñan ire senarra escocitarra zanik, emengoa zala uste nayonan.

\* \* \*

Amak, sei urteko semetxoari :

—Aizu, Pellotxu. Len, azpil onetan bi gozopil laga dodaz. Zelan da, ba, orain bat besterik ez egotea?

—Bigarrena ikusi ez dodalako izango da.

\* \* \*

Tertuli baten bai diñotso batek beste bati :

—Nor da ainbeste zarata ataraten dauan emakume ori?

—Neure emaztea —diñotso besteak—.

—Koontxo... parkatu egiztazu; ostopo egin dot-eta.

—Ezaitte larritu orregaitik. Nik zuk baño len ta koxka andiagoan egin neban.

\* \* \*

Orozko-uri-barrutian, eskean ebillan pralle bat, bere komenurako.

Euri ta aize-otzetik gordetzeko, burutik-bera saku zar bat sartuta eroan. Basetxe batera eldurik ;braun-braun! yo eban atea.

Ate-otsa entzunik urten zan mutil koxkorra. Bai azkar sukalderatu be, bildurrez beterik, ta bertan, bastar baten gorde.

Amak ori ikusirik diñotso :

—Kosetxo ;nor da ba atea yo dauan ori?

—Eztakit ama; astoa ezta; mandoa be ezta; baña asto-kolorekoa da, dana dalako denganiño ori.

\* \* \*

Iñaxio Onazan'ek amaikatxu onu-on emon izan eban bere bizitzan. Ori ezta arritzeko. Arritzeko dana da, il da gero be onu emoten yarraitu ebala ikusiko dozunez.

Il zanean, lau adiskidek eroien bere zerraldoa bizkar ganean.

Bide luzetxoa egoan baserritiik urira.

Bide-kurutzera eldu ziranean, anderuek esan eben euren artean: "Nundik yoango gozak? Goiko bidetik ala bekotik?"

Eta Iñaxio'k, zerraldoaren estalkia yaso ta bere burua atareaz esan eutsen :

—Ni bizi nintzanean, goiko bidetik yoaten nintzan.

\* \* \*

Zapata dendako nagusiak esan eutson morroiari!

—Luzarotxu euki dozu, urten dan bezero ori. Ezer erosi al dau?

—Bai; zortzireun pesetako oskiak daroaz.

—Eztot, ba, ikusi ordainduten.

—Ez. Etxean, dirua artzea aztu egin yakola esan daust, ta gero ordainduko dauzala.

—Ezaguna al dozu ala?

—Eztot ezagutzen, baña ziur naz itxuliko dala.

—Zerk damotzu, ba, ziurtasun ori?

—Daroazan oski biak oin batekoak diralako; biak eskumakoak.

Exkerrak morroia argi ibili zala, bestela nagusiaren begizkoan azpian, antxe galduko eban bere ogibidea.

Antza danez, morroi orrek, kontrabandisten yokabidea edo bai ekian. Oneik, millaka bikoti muga-zear daroazanean, oin batekoak eroan oi dabez lenengo. Okerrik

bage pasau dabiezala? Beste egun batez beste oñekoak.

Iñoiz arrapatzen dautsiezala? Ezta ardura. Badakie illabeteren buruan errematera atarako dabiezala zapa-tok, ta oin batekoak diralarik, eroslerik ezta izaten; ez-tauz iñok nai izaten, ta orduan, galdu ebazan kontra-bandisteak, bost errialegaitik erosten dauz, beste oñe-koekin alkartzeko. ¡Ori da ziur yokatzea! ¡Oneik kon-trabandistok dakien beste!

Zaldi pillla bat eroan bear dabiela bestekaldera? Pa-re bat zaldi argal, karabiñeruak naiz jendarmeak ikusi al izango dabiezan bidetik eruaten dabez. Ta emengo ta ango muga-zaindariak eurekana urhiltzen diranean, bes-te bidetik yoaten dira zaldi pillak, bi argal galdu ta be-rrogeitamar gizen irabaziaz.

Egun batez, mugaldeko uritxu baten nengoalarik, amak esan eutsan umeari:

—Maitetxu; zoaz eleizara, meza nagusia asia da-ta. Ikusi egizu, urlia ta berendia karabiñeruak an dagozan ala ez.

Itxuli zan neskatoa esanez:

—Ama; urlia, berendia ta berendi eztana be antxe dagoz.

Andreak artu ebazan bi pardel andi ta an yoan zan bere lana egitera. Ordu erdi baño len itxuli zan beste bi pardelekin.

Beste goiz batez, bi emakume sartu ziran etxe ar-tan. Geien bat arritu nindoana, emakume arein bula-rrak izan ziran. Bularrez oso aberatsak bai ziran. Sartu ziran gela baten da andik ordu erdira azaldu ziranean,

berriz arritu nintzan, emakumeok bular arrotasun bage lirain ikusiaz.

—Kontxo! —esan neutson etxekandreari—. Len, emakume orreik, bularrez oso aberats ziran, eta orain beartsu.

—Ezaita, ba, arritu —erantzun eustan—. Orrein bu-larretako aberastasuna, sacarina zan.

Ezan zailla ulertzen; aldi artan eskas ebillan gozo-koa, azukarra, ta sacarineak irabazi onak emoten eba-zan. Karabiñeruen aurretik patxadaz etorri ziran ema-kume “bulartsu” areik.

Bizibidea ataratzeko bide asko dira ta orreina ezta txarrena.

Arkakosuak iltzeko be modu asko dagoz: Mallu-keaz buruan yota, naiz bi atzazal lodiren artean estututa.

Baña kontrabandisten yokabideari, zuzenagoa, gazi-garriagoa, gizontsuagoa deritxot, bein emengo Casilla'ko barraketan, euliak garbitzeko autsak saldu oi ebazan ar-pegí gogorrarena baño.

Ark, bide bazterretan batzen ebazan autsak, paper-txoetan bildu ondoren, barraketan salduten ebazan, auts areik yaurtiten ziran amar killometro inguruan etzala eulirik izango iragarriaz.

Bildura asko saldu eban, baño euli gitxi garbitu.

Eroslietariko bat asarrekor yoan yakon, auts areik ez ebela ezetarako indarrik esanaz.

—Ta... nik ze erru daukot, ba, autsok zelan erabili bear diran ezpadakizu? —erantzun eutson—.

—Zelan erabili bear dira-ba?

Eta drogero arek, euliak atrapetako egin oi dan zirkiña besoagaz egiñaz yardetsi eutson :

Cojelis mosquis  
Abrelis boquis  
Metelis polvis  
; Tutilis mortis!

\* \* \*

1914-18'gn. urtetako guda izan zanean, aleman sumariñoen bildur izaten ei ziran Bermeo'ko arrantzaleak. Egun batez, itxas-zabalean arrantzuan ebiltzanean, euren alboan or nun azaltzen dan itxaspetik ontzi ortakoa. Ikaratu ziran danak, ta bat ez beste guztiak barruan gorde. Sumariñoeko ontzi-buruak gazteleraz galdetu :

—¿Qué es? ¿Aliadófilo o germanófilo?

—Ez bata ta ez bestea. Ni Tiofilo —erantzun ei eutson arrantzaleak dardakadan. Teofilo zan ba bere izena.

\* \* \*

Gaztelu-Elexabeitia'n, bazan antxiña, Arteta izena eukan basetxe baten, Leontzio Zimela eritxon agura zarra.

Alako baten gizon ori gexotu zan, ta oso txarto aurkitzen zan gañera.

Badakizu, ba, ondo bizi izana zan, baña zartu egin, eta betiko ez garan lez pazentzie artu bear.

Ainbat ariñen abadea ekarri bearko zala esan eban andik ur bizi zan atsotxo batek zer yazoko be, onelako orduetan, apaiza etxean egoki izaten dala ta abar.

Beingo baten agertu zan On Zeledonio, ta geixoagana urreratu.

Lenengo, autorkuntza izan zan; gero apaizak berak lagundu penitentzitzoa egiten.

Apaizak : —Bixi bedi Jesus.

Leontzio'k : —Bixi bedi Jesus.

A : —Il bedi Zatanas.

L : —(Agurea ixilik).

A : —Esan barriz, bixi bedi Jesus.

L : —Bixi bedi Jesus.

A : —Il bedi Zatanas.

L : —(Mutik bez oraingoan be).

A : —Zergaitik ez dozu erantzuten, il bedi Zatanas?

L : —Ba... ez dakit berangana yoan bearko banaz be, eta bada ezpada, ez neuke jaritxi nai bere gorrotorik.

\* \* \*

Norbaitek lege bat yarten badau, beste batek laster asmauko dau, ari iruxur egiteko bidea. Antxiñakoa dozu ori. "Hecha la ley, hecha la trampa", edo bardin samar dozuna : "Arrauzi badagit, zuk be arrauzi. Legea badagit, zuk ausi".

Len alan izango zan; gaur ez. Gaur legea egin daroana berbera ikusi daroagu lege ori austen, munduzear. ¡Maalo!



Ni baiña, esamesak laga-ta izkirimirira yoan naiten :

Txanton yoan zan edaritegi batera, berandu samar.

—Ataraixu kopatxu bat prantzez koñaka.

—Ez daiteke —diñotso nagusiak—. Galazota dauka-gu ordu onetan edari gogorrik emotea.

—Orduan... ataraixu edontzi bat ur eta mikarbona-tua.

Morroia bayoian ataratzera, baiña nagusiak alako ki-ñotxua egin eutson ez atarateko adiraziaz.

Berela nagusiak bai diñotso klientiari :

—Urrutizkiñera deitzen deutsue.

—Neri?

—Bai, zeuri.

Yoan zan tramankulu ori egoan gelatxora ta... an-txe egoan urrutizkiñaren ganean kopatxoa dizdiz. Txan-ton arritu zan arren, bapo zurrutau eban astiro-astiro, bere gogoko edaritxoa.

Mostradorera itxuli zanean esan eutson nagusiari :

Parkatu nagusi yauna, baiña ementxe lotuten naz; arren egon zadi adi, beste pare bat dei itxaroten do-daz-da.

\* \* \*

Eustasio'k, bere ogibide barrian amabost egun da-roaz. Ta orra, kepiak, nagusi yaunak ots-egin deutso. An doa kezka beteterik, zer entzungo ete dabenetz.

—Entzun dodanez —diñotso nagusi yaunak—, zu etzara bape gizon serioa. Zurruta, yokoa ta emakume-zalea zarala diñoste.

—Zuzendari yauna... ni...

—¡Kitu! Egon zaite ixilik. Itz bat bez geiago! Gaur gabea, alkarregaz urten bear gara biok.

\* \* \*

On Agapito'k izen barregarria ebala ezin ukatu. Ba-rregarriago zan baiña izatez. Etzan, ordea, berezkoa be-re barregarrikeria, baizik zurrutaren bidez zan barrega-rrri. Ta ori, barregarriagoa dozu zoritxarrez.

—Bart... —esan eutson emazteak jazokun onetako egun artan, disimulu andiagaz— bart... gau erdian yo nindun loak. Beraz eztakit ze ordutan etorri izango zi-ñan etxera, aspaldion berandutxo zabiltz da. Zergaitik ez etorri goitzoago?

—Gaur, amaikak yo orduko, etxean izango naz.

“Esana bat, egiña bi; esanakin kontentau adi”.

Gau artan be lagun artean, igarri barik yoan ya-kozan orduak. Goizeko irurak ganean ziran kalea-zear ¡bapo! etxera yoyala, baikor, abopear abesturik :

Ezta teologorik,  
ez filosoforik  
ardoari neurria  
artuko dionik.  
Gizon andiak ere  
ikusi dituk nik  
euren moskorra ezin  
disimulaturik.

—Baña kantak, kantak dira-ta, gizon andiak baño obeto disimulatzen badakit nik. Beraz... jez ikaratu, Agapito!; sartu gaitez an ixil-mixil etxean ta iñortxok eztau zer esanik izango —esan eban—.

Lenengo kolpean ezpazan be, bostgarrenean-edo sartu eban giltza zerrallearen begian. Atea iriki ebaneko, etxeko erlojuak ¡kuku! kantau eban iru aldiz. Oskol ortakoa bai zan ordukaria, erlojua.

Uste bageko kokka ori bardindu nayan, ¡kuku! ¡kuku! abestu eban berak be, beste amaika bider, emaztea lotan ezpazan atzipetuteko ustez.

Aize-korroskada baten ondoren, zotiñak eldu eutsan. Pasau yakonean, ixil-ixilik sartu zan ogean.

—Ikusten dok, Agapito? Zerak ondo egin ezkerota zer esanik sortuten —esan eban bere kolkorako— ta bapo lo-egin eutson liorreko lebatzak.

Goizean beti lez altxa, apaindu, gozalduta etxetik urtetian emazteak dirautso:

—Bazoaz, Agapito?

—Bai; gero arte.

—Aizu: Bide batez erloju orixe eroan bear zenduke erlojutegira, ia zuzentzen badabe zerbait.

—Zer ba?

—Eztabil ondo; batez be kuku ori. Bart, goizeko iruretan, amalau jo ditu; amalau aldiz egin dau ¡kuku! Orrez ganera, korroskada ta zotin itzelak yaurti ebazan gaxoak. Beraz... eroan egizu, arren; erloju on bat bage ez daiteke ondo ibili etxea.

—Aizeren bat sartu izango yakon eta laga dayogun egun pare bat, ia pasatzen bayako —esan eutson senarrak.

Orla egin eben. Eta ain justu be, kukua sendatu egin zan eta egun artatik aurrera zintzoro yoten ebazan orduak.

Or ikusi zan, emazteak zerak disimulatzen obeto ekiala senarrak baño, ta emazte argi baten “diplomasiak” balio andia dabela.

Arramuskadaka asi bazan, sendatuko ete zan kukua?

\* \* \*

Barremendi'ko Kandido alkate egin eben.

Igande goizean, lenengo udal-batzarrerako gertatzen egoalarik, esan eutsan emazteak:

—Kantzontzillorik бага etzara urtengo gero etxetik.

—Baña, Josepa, egundo yantzi ezpadodaz, ba!

—Ezta ardura. Orain arte alkate be etzara izan. Orain bazara, ta ezta itxurea autoridade bat, barruko yantzi errespetosu ori бага ibili daiten.

Emazteari yaramon egiñaz, an yoan zan Kandido, “Amalau” baño dotoreago, kantzontzillo ta guzti.

Eztakigu ardurearen kontuz ala goizeko esnea garraztu yakolako, edonori etorri legikion larri-alditxoa eldu yakon. Bidea laga-ta sasipe batera yoan zan.

An, prakak yatzi ta bere lana asi eban, baña kantzontzillorik munduan zanik gogoratu бага.

Indar ta tarratadatu batzuen ondoren nasaitu zan. Prakak jaso-ta, oi dan lez, begitu eban zelako opilla laga ete ebanentz. Baña an ezegoan ezetariko lorratzik.

—Koontxo! —esan eban arriturik—. Alkateak ez ete

dabe ba K-K'rik egiten? Izan leitekena da, orixe be. Zeregin itxusi oneik eztira izan be autoridade batentzat egokiak. Dana dala, yo daigun aurrera, ta Dn. Andres sekretarioak azalduko daust eskutapen au.

Udaletxera eldu zaneko, urduri, galdetu eutson Dn. Andres'eri:

—Esaiztazu, Dn. Andres: Alkateak K-K'rik egiten dabe?

—Nik eztakit alkateak K-K'rik egiten badabe ala ez; baña zuk kakantz galanta dakarzu.

\* \* \*

Joxe-Pello'k, errukior, bai diñotso Txanton'i:

—¡Eederra egin uan! ¡Lau milla ogerleko prestauko eutsozakan, ba, Kalisto lotsagaldukoari? Gizajo aul bat az i!

—Gizajoa ni? Zer dala-ta?

—Gizajoa ta kokolo galanta! Ba al dakik zer egin dauan Kalisto'k? Ire diruekin igez egin yok erbestera, eure emaztegai airosea lagun dabela.

—Zertarako emon neutsozala uste uan, ba?

\* \* \*

Pralle zarrak urrun yoan bearra izaten eban egurretan, lekaidetxeko yanariak egosteko.

Neke andiko lana zan; ondarrezko eremu, lekarotz edo desiertua igaro bear izaten ebalako.

Lekarotzaren bide erdian, zugatz eder bat egoan kerizpegarri, ta bere azpian iturritxoa ur-gardenakin asegarri.

Eguzki galdatan, egarriz, andik igaroten zanean, egarri itzelez egon arren, edan bage aurrera yarraitzen eban. Yainkoari eskintzen bai eutson sakripisiua.

Ori egiten eban bakotxean, zeruan izar bat piztuten zan.

Egun batez, pralle gazte batek lagundu eutsan egurretan.

Itxultzean, egurrez zamatuta etozan biak. Gaztea buru-makur da ixilik, ondar igor igikorraren ganean baltantzaka; ao ta ezpain legorretatik bitsa eriola. Baña ixil-ixilik gizajoa.

Alako baten, onek, oyu pozgarria egin eban: “Aita, auxe zoriona!! Orra iturri gardena!”.

Pralle zarrak, ori entzutean burutapen au izan eban: “Nik edaten ezpadot, gizajo onek be eztau edango neure yokera yarraitzearren, eta gaur, edan egingo dot”.

Pralle zarrak edan eban danga-danga. Gazteak be bai nai aña.

Egurak leporatu ta abia ziranean, pralle zarrak esan eban berekautan: “¡Gaur piztuko ete da zeruan izarra?”.

Ta bapatean, bi izar piztu ziran zeruan.

\* \* \*

Boo! Pello'ri ¿ta nori ez? atsegin izaten yako ardauxoa. Bearba geitxo. Ori be eztozu ona.

Egun batez, sarri lez, berandurarte iraun eban zurrutean. Tabernariak oartu bear izan eutson, etxerako ordua zala.

Urten zan asmo orrekin. Bitzabala zabala zan arren, zabalagoa bear ebalako-edo, orra nun zapaltzen dabent otomobil batek. Gizajoa, azurrak urkulduta Bilboko Osatexera ekarri eben.

Gurasoak, ezbiar au yakin ebenean, arrapaladan etorri ziran urrengo egunean semea ikustera. Amak, naigabez heterik bai diñotso :

—Ene, semetxu biotzekoa! ¿Baña zer dala-ta egoten zara ba ain berandurarte tabernan?

—Ama —erantzun eutsan semeak—; tabernan enau zapaldu otomobillak. Oba neban bertan yarraitu izan banu, gaur arte.

\* \* \*

Ikusiko dozuen lez, bardin-bardin egozan an gauza guztiak.

On Patrisio, Ikastetxe Nausiko irakasle puntarengoan zan. Bere ikasketak Paris'en egiñikoa. Lengo illean, bere gaztearoko tokiak eta abar ausnartu nairik, an yoan zan Prantziko uri nausi ortara.

Antxiña bizi izan zan kalea-zear igarotzean, ostatariegoniko bere gelea ikusteko askuratxoa sortu yakon, ta igon zan bosgarren etxoñera.

Ikasle gazte batek iriki eutson atea, arrera begikoa egiñik, ezagutzen eziran arren. Irakasle gazteak eruan eban irakasle zarra, onek bere egarria ase egian.

Gelea bigiztatu ebanean esan eban gure gizonak :

—Dan-dana dago bardin emen. Ezertxo be ezta aldatu. Lengo usotoki berbera da gela au. Oe ta aulki berberak. Lengo estufa zar berbera. Lengo txixontzi berbera...

Une onetan, uste bage, armarioko atea iriki zan eta neskatil liraña urten bertatik.

—Neure... neure arreba da —esan eban, erdi total, ikasleak—.

—Atxakiak be, bardin-bardiñak dira —esautson irriparrez On Patrisiok—.

\* \* \*

Gaur egunean ugari dabilzan turista orretariko bat bai yoian Lemona'tik-gora, Gazteiz'erako bidean.

Basetxe baten aurretik igarotzean ollo bat zapaldu eban bere belbillakin. Lotu zan au, urten zan bertatik turistea, ta etxe-aurrean egoan baserritarrarengana zuzendu zan, kaltea ordaindu nairik, iñotsola :

—Ikusi dozun lez, olloa garbitu dot eta ordaindu egin nai dautzut. Eutsiz ogei ogerleko, ondo ordaintzen dautzudan uste osoan.

—Bai, baña... ollarra be ordaindu bear daustazu —erantzun eutson Patxiko'k, pekotza baño serioago—.

—Ollarra? Ollarrik zapaldu ezpadot, ba?

—Ez, baña... gure ollarra oso enamorauta egoan ollo orregaz, ta ezbiar au yakiten daunean il egingo da gizajoa, biotz-naigabez.

Eta turisteak, irriparretxoak egiñaz, berrogei ogerleko yarri eutsozan esku-ganean.

¡Oneik baserritarrok dakien beste! Latin erakutsi izan baleutse, zer ez ete eban asmauko gure Patxiko'k! Amarrenak eta primisiak kobratzen yarraituko eban, se-guru asko, gaur be.

\* \* \*

Yatetxe apain-ospetsu baten sartu zan gizona bazkaltzeko asmoz.

Maiian yezarri zaneko, serbilletea artu ta kokotean korapillo andia egiñaz, paparretik dindiliz yarri eban.

Itsuseria nagusiak oarturik, deitu eutsan morroiari ta esan :

—Zoaz gizon arengana ta esaiozu bigunki, diploma-ziz, emen ez daitekela ori egin.

Yoan zan morroia agindua betetzera, galdetuz :

—Zer nai dozu yauna? Bizerra mostu ala ulia ebaki?

\* \* \*

Treanean, lenengo mallako yezarlekuetan patxadaz yoiazan bidaztiak, biajeruak, gizona! Euretariako bat pi-pearri tiraka keia eriola. Beste batek diñotso :

—Yauna; zorabiau bear gaituzu danok eta arren yoan zaikidaz beste leku batera pipatu nai badozu.

—Enaz yoango. Zuk eztozu eskubiderik ni emetik atarateko.

Eztabaidea erabagiteko deitu eutsen zulatzaleari. Pipadunak esan eutsan oni :

—Yaun orrek pipatzea galazo nai daust. Ta nik di-ñot, orrek eztaula orretarako eskubiderik. Ia, erakutsi dagitzula txantela.

Erakutsi eutson, ta txantela bigarren mallakua zala-rik, zulatzaleari beste burdi batera aldatzeko agindu eutson “protestantiari”.

Yoan ziranean, danak parrez lotu ziran. Ta batek galdetu eutson pipadunari :

—Zelan igarri dautsozu, bigarren mallako txantela eroala?

—Neuria lako bardiña eroalako.

\* \* \*

Iru alaba zizi-paza eukazan ama batek. Nondi edo andi ama onek lortu eban euretariako batentzako senar-gaia. Au lenengo etxera etorri bear zanean, amak agindu au emon eutsen irurei :

—Gero... ixilik egongo zarie gero, neuk zuen orde-z berba egingo dot-eta.

Sukaldean josten egozala eldu zan mutilla ta zizi-pa-zen orde-z amak txirri-txirri ziarduan barriketan. Luza-rotxoan onelantxe yoian bisitea aurrera.

Alako baten alaba batari aria eten yakon eta :

—I, nezkato —esan eutsan urren eukan aitzari—, aliak put egin yauztana.

Bigarrenak :

—Izilik, amak izilik egoteko ezan dona-ta.

Irugarrenak :

—Amak orize ezan dona, baña zuek belbaz ta belbaz.

Mutilla yoan zan, amarekingo yarduna amaitu ebanean, “Biar arte” esanaz.

Urrengo eguna aurrera yoian baña mutilla ez agiri. Neskato aukeratuak bai diñotso amari :

—Ama, atzo, bial etoliko zala ezan eban, eta bial gaul da.

—Mosola. Biar ta atzo, eztonaz izango iñoiz, gaur ; baña biar, gaur, atzo izango don. Ta atzo betiko yoan zana, ezton geiago etorriko. Zuek atzo, gaur ta biar mela batzuk zarielako.

\* \* \*

Bizitza aldrebezaren esakerak ei dira azpiko orreik. Ala irakurri dot beintzat. Zeuek ezarri daikiozue esakun bakotxari, zeuen komentarioa.

Asi mutillak :

ERREZAGO DA... agiña ataratzea, agiñako-miña kentzea baño.

...dirua irabaztea eskola bage, yakintsu izanik baño.

...zapata pareta eroste, eurentzat lokarriak baño.

...diru-etxean 100.000 peseta eukitzea, txakurtxiki bat baño.

...ezkontzea, ezkongai lotzea baño.

...idazti bat idaztea, irakurtea baño.

...illean 15.000 peseta irabaztea, 700 irabaztea baño.

...iru neskatillegaz urtetea, norberak bakarrik baño.

...lantegiko nagusiarekin itz-egitea, aren morroiarekin baño.

...Atxuri'ra oñaz yoatea, otomobillean baño.

...etxetik atera bage atsedena artzea, or-zear urtenik baño.

...etxe andiko alabaren maitasuna lortzea, bertako atezañaren alabearena baño.

Ona arte nik irakurri dodazanak. Oartu dodanez, auxe idaztea aztu yakon idazle orreri :

Errezago da... zera egitea, ase ta bete egitea baño.

Yanariak daroen presioetan beintzat. Ezteritxozue?

\* \* \*

“Eta kirolariak, zer?” galdera, ta “Munegain”ek kontau euskun Uriona'ren izkirimiria, biak irakurri nebazan. Galdera ta izkirimiri, atsegin.

Uriona'ren erantzun orrek, beste bat gogorazi ; Gabika euskeldun txirrindulariarena, ta nik zueri kontauko.

1965'gn. urtea zan. Donostin, txirrindularien mundu txapelketa yokatu. Simpson ingalandarrak irabazi. Gabika 10gn.

Lasterketa orren ondoren, izparkari bat urreratu yakon gure mutillari ta galdezka asi. Onek, “si” ta “no”, besterik ezeutson erantzuten, da ori be epel-zamar.

Agiri danez, izparkariak, berak nai eban erantzunik ez eban lortuten eta destañez esaten dautso : “Ik eztok

egundo txapelketa bat irabasiko, gaztelera itz-egiten ikasten ez dokan bitartean!”.

Orduan Gabika'k, an albuano egoan Simpson ingelarra atzamarragaz izentatuz, erantzun eutsen: “Orrek, nik baño gaztelera gutxiago daki, ta, munduko txapeldun da”.

Etzan agertu izparkari aren “interview”rik.

Izan be, Arza anayak baño obeto yo eutsen txalaparta.

\* \* \*

—Da...? zer esan dauk osagilleak? —galdetu neutson Andres adiskideari—.

—Betiko leloa; ez edateko ta ez erretzeko, nere gexoarentzat oso txarra dala-ta. Baña goizeko seiretan yaiki ta lanera yoan bearra txarra danik etxaustak esan. Da ain zuzen be, orixe dok ni makaltzen nabena.

—Zer izan biok-eta! Lana, gizona goralduten dauan birtuterik ederrena dok; osasun-iturria.

—Orreik Gabon-kantak dituk! —erantzun eustan—. Ori orlan balitz, aberatsak, guretzako lagako leukiela uste al dok? I eu be ez az espabillauko onezkero.

Nere eretxirik ez eban yaso nai izan eta ortan eten gendun yarduna.

¡Oorra beste txalapartari bat!

\* \* \*

On Braulio sendagillea arritu zan, bi mutiko iñoren laguntzarik bage, bere konsultan ikustean. Eskua sabel-ganean eroanari galdetu eutsen:

—Ik zer dakark?

—Kanikea.

—Kanikea?

—Bai; kristalezko kanikea iruntsi dot.

—Ta ik? —besteari—.

—Ni... kanikearen billa nator, neurea da-ta.

\* \* \*

Kerbaxio oso dotore yoian, astiro zamar ebillan taxis baten. Eta bai diñotso txoperrari:

—Yoan zaite apurtxo bat azkarrago, ezkontzera noa-ta.

—Parkatu eiztazu, baña ain zuzen be orrexegaitik noa astiro, artu dozun erabagi ori, aldatzeko astia izan dagizun.

\* \* \*

Bi andra adiskide, azokan erosketak egiten ari dira. Atzo baño gaur karuago dabil dana.

—¡Auxe don auxe! —diñotso bata besteari—. Egunetik egunera ¡dana gora! Babarrunak... gora; aragia... gorago; oliua... goora; ¡daana gora! Alan yarraitu badai yarrai goratze onek, bi senar gutxienez bearko yonaguz yanariak erosi al izateko.

\* \* \*

Umegintza bateko bi arratoik, aspaldi alkar ikusi eziranak, alkar topo egin eben. Bata lodi-lodi egoan; bestea argal-argal. Onek, ari:

—Zer bizi-modu egiten dok orren gizen da eder egoteko?

—Irin-saku, gazna pillak eta abar erabili daroezan kamioi orreitan ibiltzen nok, atzera-aurrera, mauka ederrak egin al izateko. ¿Nai al dok etorri neugaz?

—Bai. Ia saietzok betetzen badodaz neuk be.

Sartu ziran kamioian. Bai yoiazan bide zabalak zear ase ta bete egiten. Onetan ¡pixss! zulatu yakon burdiari burpilla, ta lotu zan bide ertzean.

Burtzain batak esan eutsan besteari:

—Ekarri egik katua.

¡Arratoi argalaren anka-yokua, katuaren izena entzun ebanean!

Ezpai ekian, kamioetako katuak ez ebalá arratoirik yaten.

\* \* \*

Ama, iru urteko semetxoarekin erosketak egitera yoan zan, salerosketako denda andi batera.

Mutikoa jostalloak ikusten eta ama bere gauzak erosten, alkar galdu ziran. Bere burua bakarrik ikusi ebanean, txikitxoak negarrari emon eutsen.

“Ardi galdua” yaso eben denda artako nagusiaren “despatxura”. Onek mutikoari maiteki:

—Potxolo; alakoetan, amari gonatik eldu bear yakok.

Txikiak, bere mingain erdiakin:

—Eskua luzatu dot baña ezin alapau izan dot amalen gonea. Datolen ultian allegauko naz.

Gizajoak eztaki, bela zelan luzatu, alan labultuko dilala gonak.

\* \* \*

Ezkon-berriak egin eben euren ezkon-ibillia. Baapo ibili ziran! Ondo yan, ondo edan, ondo lo-egin eta... dan-dana iñok gertuta. Norbera ezertarako arduratu bage. Antxiñakoak esan eban lez, “Bustita yan”.

Ibillalditik etxeratu ziranean, lenengo goizean, ixil-mixil yaiki zan senar gaztea ta etxea ziatz apaindu eban. Ondoren gozari ederra gertau. Bandeja baten ganean yarrri eban gosaria ta emazteari eroan oera.

—Oo, ene senartxu maitagarria! —esan eutsan emazteak—. Senti zaitut lanean. Badakizu zuk, lanak polito egiten. Milla esker, laztana.

—Bai, badakit, baña gaur nik egin dodan lan au, ikasbidetzat izan dagizun egin dot, ta biartik aurrera zeuk egin bearko dozu, gure maitasuna eten eztaiten.

\* \* \*



—I, Pello; len, Dn. Pepe'ren olloak ire baratzean sartuta ikusten naioazan zorriketan eta bedar ta azorriak yaten, egunero. Baña aspaldion etxoadaiz ikusten. Zelan uxatu dozak? Zer xistema asmau dok ori lortzeko?

Xistema erreza mutil: Gau batez, bedar-artean arrautza pilla gorde naioan. Urrengo goizez, Dn. Pepe ori gure baratzerara begira yarri zanean, yoan nintzoan bedar-arte ortara ta banan-banan, arrautzok kolkora yaso. ¡Santo erremedio! Arrezkero eztok azaldu aren ollo-rik!

\* \* \*

Lázaro Errotako, meza nausira yoan zan, eta predi-koa asi zanean, loak artu.

Apaizak eguneko Ebangelioari eragoion andikiro. Ain zuzen be, beste Lázaro'ren erresurrecciónat zaz.

Apaizak: "Arrigarriak ziran Kristo'k egiten euzan mirariak. Deitu eutsen ildakoaren etxera. Eta Jesus'ek esan eutsan: ¡Lázaro, yaki zaitel!".

Apaizaren oiuz batean, ikaraturik, zutitu zan gu-re Lázaro begi-igurtzika ta... esan:

—Yauna, parkatu, lo-kukotxu bat baño ezta izan.

\* \* \*

Errupiño'k, loteriak opaldu eutson diruakin, lan-etxe polita egin eban. Peru adiskideak esan eutson ala-ko adar-soñutxoarekin:

—I, orain andikiro bizi az. Andikiro ta baketsu, urit-ik at, zarata gogaikarrietatik urrun.

—Enok txarto bizi. Orraitio baiot ardura bat. Nor-baitek begiz yo naulako edo etxakiat zergaitik, takian-takian lapurretan egiten yaustek, gabaz.

—Orrek erremedio erreza yaukak, gizona! Erosi egik txakur on bat eta berak zainduko dausk etxea iñok baño obeto.

—Eztok asmo txarra. Gaur bertan erosiko yuat.

Andik egun batzuetara, kalean topo egin ebenean, galdetu eutson Peru'k:

—Da? Lapurretarik egin al dauek txakurra erosi uan ezkerro?

—Bai; bart ostu yaustek ene txakurra.

\* \* \*

Epai-etxean lapurra epaitu eroen.

Epaikariak galdetu:

—Zelan izan da, ba, ainbeste gauza ostu ta dirua bertan lagatzea?

—Zuk be asarre epaikari, yauna? Nere emazteak be beste ainbeste esan eustan.

\* \* \*

Estu zamar egoan gexoak bai diñotso bere emazte-rai:

—Marixa; azken iztxo bat emon bear daustazu.

—Zuek esan, Kaxinto. Zer eskatu, a emongo dautzut.

—Ni il banadi, Carlos'egaz ezkondu zaitezala nai neuke.

—Carlos'egaz? Biziki gorrotatzen zebala nik uste neban!

—Ta... alaxen da —erantzun eutsan maxkalki—. Baña itz emoten badaustazu, dana parkatuko dautsot, zeruko zoriona lortu dagidan.

\* \* \*

—Beno, neska, zazpirak donaz da etxera yoan bear non.

—Ondiño goiz dona ta egon adi apur bat.

—Ez negiken. Gure gizonak zazpiretan lagatzen dona bere lana. Ireak, noiz?

—Nere senarrak etxona lagatzen iñoiz, bere lanik. Ezpaion asi egundo.

\* \* \*

Julien zekena, larunbatero yoan oi da adiskide baten etxera apaitan.

Lengo larunbatez, apal-ostera agur egitean, esan eutsot etxekandreak:

—Iñortxok zer-esanik izan eztagian, gure mirabiei bosna ogerleko emon dautsedaz eskupean, zeure izenez.

—Kontxo! Amarna emon bear zeuntsezan! Orain orreik, ni zeken bat nazala usteko dabe!

\* \* \*

Senar-emazteak arramarratxoak sortu eben euren artean, alkarri txipladatxoak yaurtiaz. Emazteak zitalki, iñotson:

—Zuk... nai dozuna esango dozu, baña yakin egizu, ni enintzala ibili zure atzetik!

—Lakariora be ezta ibiltzen arratoiaren atzetik, baña arrapau egiten dau.

\* \* \*

Pello-Koxe, Koxe-Pellipekana yoan zan kontseu billa. Onek:

—Zer yazoten yak, ba?

—Ezkontzeko aukera bi yuadaz. Bata, alargun aberatsetarikoa dok, baña etxoat maite. Bestea, barriz, oso txiroa, baña maite-maite yoat. Zeñegaz ezkondu?

—Kontxo! Alakoetan biotzaren deiari erantzun bear yakok mutil! Ezkondu adi txiroagaz!

—Eskerrekasko. Orixe egingo yuat. Deituko dauat garaiz ezteguna.

—Aizak; alde baño lenago esaiztak: ¿Nun bizi dok alargun ori?

\* \* \*

On Kerolimo'k etxe barria egiteko lur-zatia erosi eban. Muna andia egoan bertan, ta, a bardindu egin beaz oñarri bideak egiteko. Bere kontura egin nai eban lan ori, ta tresna-erosketak egiteko asmoz deitu eutson Txanton etxegiñari, eretxi eske, esanaz :

—Txanton; ¿zenbat atxur da zenbat otzara bearko dodaz muna orren lurrak aldatzeko?

—Atxurak txikiak badira, asko. Otzarea andia bada, batekin naikoa izango dozu —erantzun eutson Txanton'ek—.

\* \* \*

Au, Pancho Villa, Mexico'n buruzagi zanekoa dozu. Onek, ots-egin eutson egun batez Estadu bateko yaurlariari, gobernadoriari, esanaz :

—Aizu, manito; or doatzu nere semea, zeure sekretariotzat yarri dagizun, beraz badakizu zer egin bear dozun: Ondo artu ta aloger ohea emon, ordaindu.

Andik egun batzuetara deitu dautso Pancho'ri Gobernadoreak esanaz :

—Buruzagi yauna; zure semeak eztaust balio sekretariotzarako. Ezpaidaki, ez idazten, ez irakurten.

—¿Orrek erremedio erreza dauko! —erantzun eutson Panchito'k—: Zeu yarri zaite sekretario, ta, nere semea yarri daitela Gobernadore.

\* \* \*

Tripazai tremena zan Kerolimo. Ospe ori eban, beintzat. Etxe batera konbidau eben bazkaitara ta aragi-patatazko kazuela andia mairatu ebanean etxekandreak, asi zan bere azpilla betetzen astiro-astiro, ganez egin arte. Mai-zapia loitu bear ebala ikusirik, bai diñotso etxekandreak :

—Kerolimo, gero be, barriz artu daikezu.

—Asmo orretan nabiltzu.

\* \* \*

Txanton arratiarra, Yurre'tik gorantz ba yoian astelen batez, illunabarrean, ardandegian egun osoa egin ondoren. Albo-alboka ebillan arraioa Z ikaragarriak egiñaz bidea-zear.

Bere adiskide bat, basotik etorran, orbel-batzetik; eta bere laguna txalupak itxasoan lez ibiltzen ikusita bai diñotso :

—¿Amutil! Ogerleko bat pozik emongo neukek i lez egotearren.

—¿Et, et! bost ogerleko gaitik be ezaz ni lez yarriko, bo-bo-bost o-o-ogerleko ga-gaitik be-be-be eeez!

Bere terralagaz aurrera yarraitu eban Txanton'ek. Urrun eukan etxea. Bost bat kilometro ibili ondoren, sigarrotxoa piztuteko, lotu egin zan bide-erdian. Bizpairu aldiz pospolua piztu be bai, baña aizeak arpegiz yoten eban eta zelan piztu alan itxaltzen eutson.

Orduan, bere naia lortuteko asmoz buelta erdi egiñaz, aizeari bizkarra emonik, lenengo txirritadan piztu

eban sigarrua ta... "ointxe pauta-pauta erreaz bapo yoango nok" esanaz, aurrera yarraitu eban, baña sigarrua piztuteko egin eban buelta erdia aintzat artu barik, ta an yoan zan lengo bidetatik. Yakiña, orla ezin eldu etxera. Oinkada bakotxean etxetik urrunduten zan.

Urrengo goizean, orbel-batzallea, basora barriz, ta Txanton'en emazteagaz aurkitu.

—Goxetik zabiltz, Koxepa.

—Ibili bear gizon batzuegaz. Bart ezta etxeratu gure Txanton, eta arduraz noa ezer yazo ete yakonentz.

—Koonstro! ¡Baña atzo illunabarrean ementxe ber-ton egon banintzan ba ber-beragaz, etxerantz yoiala!

—¡Ezta izango egia! Orduan... goi aldetik da! Da... ondo etorran?

—Bai! bost ogerleko gaitik saltzeko ez eukon beintzat!

\* \* \*

Sendi ta lagun arteko tertulitxo batean, barriketa gozoan egozan yaun eta andrazko, adiñaren, edadearen gora-beratzaz yardunean. Onetan, urtetxoetan dexente zamar ebillan anderaño apaintxo batek galdera au:

—Da... zuk, Kelemente yauna, zenbat urte ezarten daustazuz neri?

—Nik... bat bera bez —erantzun eutson On Kelemente'k—. Aldian daroazuzanekin naikoa dozu.

\* \* \*

Kerolimo, iztarriko miñagaz larri samar egoan ogean. Egunetik egunera abotsa makaltzen yoiakon da, osagilleari deitu eutsen. Onek arakatu eban gexoa. Egin eban errezetea. Ondoren etxekandreak lagundu eutson ateraño.

Barriketalditxoaren ondoren, emaztea gelara itxuli zanean, galde Kerolimo'k:

—Da? zer diñosku ba osagille yaunak?

—Gauz onik ez —erantzun eutson emazteak mixereimeiko arpegiagaz—.

—Zer dogu ba? Esaiztazu andrea, garbi, zer esan dautzun!

—¡Oi, enetxoa! Gaitz biziak, kantzerrak, yota daukazula iztarria, ta eztozula salbasiñorik.

—Biziarena? ¡Oori baño ezpada, laster garbituko dogu bizi ori!

Puxka egizu errezeta, ta yoan zaite estankura. Ekarri egizu "Celta", "Caldo" edo dalako tabakoa ¡erruz!, ori aguantauko dauan bizirik ezta sortu ondiño-ta!

\* \* \*

Ikastolan anderañoa, azalpenak egiten ari zan neskatotxoeri aizeatzaz, esanaz:

—Aizeak mota askotakoak dira: Ego-aize epela, ipar-aize gordiña, euri-aizea, sarkaldekoa, ekaitz-aizea, firi-firi leuna ta abar.

Ta orain, ia erantzuten badaustazue —diñotse anderañoak—. Egun batez bai niñoyan trenean. Bapatez

iriki zan bultz-burdiko atea, ta nere buruko uleak aida-  
tu ziran da nere arpegian karisi leuna nabaitu. Zer zan?

—Zure maitale txantel-zulatxallea —erantzun eu-  
tson neskatotarikoa batek.

\* \* \*

Illuntzean betiko lez ardautxoa edatera yoan za-  
nean, etzala ondo aurkitzen, esan eutsen Txanton'ek  
bere lagunei.

—Zer yazoten yak ba? —galdetu eutsen—.

—Etxakiat. Eztatuet ezer esan gura izan, baña  
zortzi egun gutxienez yaroadaz gogo-txarrakin, da gaur,  
iñoiz baño makalago aurkitzen nok.

—Ba... neuk emongo dauat tarjeta bat, Bilboko neu-  
re adiskide osagille on batentzako, ta urrengorako laga  
barik yoan adi biar; orrek gauzok ainbat azkarren era-  
bagitea oba izaten dok.

Urrengo illuntzean, Bilbotiko osterea egin ondoren,  
an azaldu zan Txanton tertuliara.

—Da? zer esan dauk, ba, osagilleak? —galdetu eu-  
tson batek—.

—Gauzonik ez. Hidropesia daukadala.

—Ja, ja, ja! Hidropesia ik? Ik ardau-presia daukak!

\* \* \*

Aita-semeak an doaz ondartzazear. Semetxoak bai  
diñotso:

—Aita, nik bañua artu nai dot.

—Ez; gaur eztok bañurik artuko, ur-biziak dago-  
zak-eta.

Gerotxoago negarti:

—Aita, nik bañua artu nai dot.

—(Asarrez) Ezetz esan dauat, ¡kontxo!

—(Negarrez) Nik bañua artu nai dot, aita!

—¡Aartik ba! baña ittoten baaz, mosua apurtuko  
dauat!

\* \* \*

Bultzia, trenaa, badoa gau-illunean ¡fi-fi! aurrera ta  
aurrera.

Patxadaz aulki bigunetan exerita doaz bidaztiak er-  
di lo. Zulatzallea azaldu danean, danak atara daroez eu-  
ren txantelak, baña...

—Zure billetea, irugarren mallakoa da —diñotso  
zulatzalleak, bati—.

—Badakit.

—Orduan... nola zoaz emen?

—“¡Priimeran!”.

\* \* \*

Bezeroa sartu da Bar baten da kafea eskatu.

—Gaur kaferik ezingo dautzut emon —diñotso na-  
gusiak—.

—Zer ba?

—Akaba ein da.

—Ez naiz arritzen. Igarrita nengoan, egunetik-egunera makalduten zijoala.

\* \* \*

Mende barriak doguz da... aurrera goaz: Len, ume-zain da iñudeak ugari ziran. Oneik euren gona arroekin eta belarritako andiekin ikusgarri ibiltzen ziran. Soldaduak be ugari izaten ziran euren inguruan eskupekotxua-ren billa. “Iñudea maite dauan soldaduak, aurrari mosu” esakun zarra, ordutikoa dozue. Aurrari emoten eutsen mosu, baña mosu aura iñudearentzako izaten zan.

Orduan baziran yauntxoak, seme-alaba bakotxeko iñude bat ebenak. Geitxo, arraioak! Gaur, iñok eztau iñoren umerik zaindu nai. Galdu da ogibide ori.

Baña aldi barriak, barri dira-ta, ogibide barria sortu da uri andietan: Txakur-zañak. Orra 20 urteko bi neskatillek egunkari baten ointsu yarri eben iragarkia, anuntziua: “Txakurra kalera ataratzeko aukerarik ezpa-dozue, geuk egingo dogu lan ori. Ortarako eztozue geure urrutizkin onetara deitu besterik”.

Egun gitxi barru, ogeitamar txakur baño geiago ebezan euren ardurapean, ta yakiña, bi neskatil gitxi ziran txakurrok zaintzeko ta agentzia yarri ei dabe mirabe pillarekin. Negozio polita ei da, ordu pare baten txakurrok parkera ataratzea.

Alako iragarkiak irakurten diranean beti sortu oi da adarjotzalleren bat, eta neskatuok izan eben alako dei bat. Auxe esaten eutsen: “Nik eztaukat txakurrik, baña

zaman uztaitxo bat yarri ta ugaletik kalea zear ataritzen banau zuetariko batek, “uau-uau” egitea eskintzen dautzuet, ta etxeratzen nozuenean, yarri dozuen tarifa ori pozik ordainduko dautzuet, txakurtxo bat banintz lez”.

Alan dozuz, ba gauzak: Len, umeak zaintzea, txarra; orain txakurrak zaintzea, ona. Alan dozuz beste gauza asko.

Esaterako; len, gizonezkoak ule laburra. Orain luzea.

Len, andrazkoak gona luzea; orain laburra.

Len, lar agindu naia txarra; gaur ona.

Len, folklorea ona; orain txarra.

Len, eskuan txori bat oba zala, eun egan baño. Orain, eskuan eun oba ei dira, bat egan baño. Ta bein ona ezkerro, izango da batonbat, txoriak kasuelan koipe-tsu yarrita oba dirala esango dabena be. ;Zer entzuteko ete gagoz!

\* \* \*

Oña Koxepa’k aurra egin eban goiz artan; alabaxtoa. Bazan poza etxean, sei urteko mutikotxoa lendik ba eben da...

Eguerdian euren semetxo ori ikastolatik etxeratu zanean, aitak urten eutson atera pozez beterik diñotsola:

—Pellotxu; arrebatxu polit bat ekarri dautzue Paris’tik!

—Egia?

—Bai, seme!

—Ta... amatxuk bai al daki?

\* \* \*

Kandido'k ostera, bigarren semetxoa izan eban. Bere lanbideak beartuta, erbestetik zan. Bataiatuko ete aita etorri baño len?

—Eeez —esan eban emazteak—. Gure Kandido'k ardura andia izaten dau izenak ezartean eta itxaron egingo dogu, zortzi egun gora-bera, itxuli arte.

Etorri zan.

—Zeu eldu arte egon gara bataiatzeko —esan eutson emazteak—, zeuk aukeratu dagizun semetxu barri onen izena. Ze izen ezarriko dautsogu?

—Lazter asmauko dogu, burua ortarako da-ta. (Apurtxu bat gora begira egon ondoren) Ba... len Jose daukagun ezkerro, oni Pepe ezarriko dautsogu.

—Aizu On Pello; zer deritxazu mutikotxu oni? Eguzkia baño argiagoa da. Onek dakian beste! Bost urte baño eztauzan arren, gauza arrigarriak esaten dauz.

Buru-erain ezkorragaz, On Pello'k erantzun eutsan :

—Eztodaz maite, goiz argitzen diran aur oneik. Gerora tontotu egiten dira ziatz.

—Orduan... zu zeu be txikitan listua izandakoa zara, ezta? —galdetu eutson mutiko "argiak".

Eztakigu zer erantzun eutsan On Pello'k.

\* \* \*

Braulio lengo egunez, arpegi goibelagaz eldu zan etxera.

—Zer yazoten yatzu, gizon? —galdetu eutson emazteak—.

—Zer yazoten yatan? Karteria ostu daustela!

—Zelan, ba? Nun eroazun, ba?

—Praka-poltsikuan.

—Ta... ez al dozu nabaitu iztarrean kilikarik eskua poltsikuan sartu dautzunean?

—Bai; baño neurea zala uste izan dot!

\* \* \*

On Korke, denda baten, antxe egoan bere txandearen zain zerbait erosteko asmoz. Anderaño polit bat be antxe egoan, bere txakurtxoa ugaletik lotuta eroala. Txakurtxoak On Korke-ren inguruan buelta ta bira egiten eban. Ta au, buelta bakotxean zerbait aldendu egiten zan anderaño ta txakurragandik. Ori ikusirik bai diñotso anderañoak :

—Yauna, ez egizu ardurarik izan. Eztautzu ainkarik egingo.

—Bakit. Baña buelta bakotxean ankea yasoten dabelarik, beste zerbait egingo ete daustan kezkaz nago —erantzun eutsan On Korke'k—.

\* \* \*

Andrazkoak bakarrik ezdira "distrainen".

Ikusi egizue zer yazo yakonen On Ugenio'ri lengo

goizean. Mai-ondoan yezarrita egoan nasai bere etxean, emazteak atara eutson kafe-esnea artu ondoren, egunkaria irakurten.

Onetan bai diño On Ugenio'k :

—Ataraiztazu, laztana, kafe-esnetxo.

—Beste kafe bat? —diñotso emazteak arriturik—.

Baña bai al dakizu ze ordu dan? Gaur ez al dozu opisinara yoan bearrik?

—Eerrekonde! Opisinin nengoala uste neban!

\* \* \*

Esakera da, astoak orlegi edo perdera yoten daula. Entzun izango zenuen baita be, zezenak zapi-gorria gorrotatzen daula ta orregaitik ari yarkitzen dautsola, toliadoriari yarki bearrean.

Ez bata te ez bestea, eztira egiak. Astoak ez zezenak, eztau ezagutzen, eztau bereizten kolorerik. Zuria ta baltza ezagutzen dauz bakarrik. Gorria, baltz; perdea, baltz; urdiña, baltz; ta aulan beste margo guztiak. Zuria, zuri.

Gizartean be badira kolorerik bereizten eztakienak. Gitxi, baña ala da. Oneintzat eztau balio "Todo es según el color del cristal con que se mira" esakereak.

Gure landolako lagun teniko batek dau tximur edo defekto ori. Onek ezin daike ikusi guk lez udabarriaren milla ta bosteunen edertasunik. Baltz ikusten bai dauz ostoak eta lorak, zuriak izan ezik.

Gaitz au, Dalton-eria izenez ezagutzen da. Yon Dal-

ton ingalandar fisiko-kimiko ospetsuak azaldu bai eban (1.776-1.840) idazti baten bitartez. Berak bai eroan bere begietan, gaitz ori.

Oroitzen naz, zinia kolorietan asmau ebenian, zer esan eban gure lagun ta adiskideak :

—Zuentzat asmauko yoen, baña ez neretzat. Neretzat ori asmauko dauan yakintsurik etxagok.

Ta alaxe da. Onek, antxiñako erara ikusten dauz pelikulak. Txarlot'ek egiten ebazanak lez. Baltz eta zuri. Tximur ori dala ta eztala, irrikeri asko izan dogu gure lagunagaz.

Egun baten galdetu gauntson :

—Beraz ik... emazteak soñeko barria yasten dabenean eztakik gorria ala urdiña badaroa. Edertuta badago ala ezpadago.

—Alan dok. Yoskeratik igarri negikek barria daroala, baña koloretik ez. Naiz gorria eroan, naiz urdiña izan, naiz marroya yantzi, nik emaztea beti baltz ikusten yoat.

—Orduan... besteok lez gutxi gora-bera —erantzun geuntson—.

Arek, barre; ta guk be, barre. Izan be, oker txiak umore apur batekin yasoten ezpadozuz, galduta zagoz.

\* \* \*

Manda-zain batek bide-zidor arritsuan ispillua aurkitu eban. Begitu da bertan eta arriturik esan :

—Koontxo! ¡Enekian gure aitak bere argazkirik egin izan ebanik!



Etxera yoan zanean zapaian gorde eban leiar dizditsua. Gauero igoten zan bertara, ispilluak azaltzen eutsen arpegia ikustera.

Senarraren zapaira-osterok, kezka andia sortu eben emaztearen barnean, eta arratsalde batez igon zan zapaira, an zer arrayo ete eukan senarrak, asmau guraz.

Ispillua aurkitu eban. Bertan begitu zanean :

—Pentsatzen neban, nere senarraren gora-beratan, emakumeren bat izango zala bitarte! ¡Baiña... Jasaus! bai itxusia dala! Alproja zarrak, eztau zori andirik izan ori aukeratzean!

\* \* \*

—Aitita; gauzatxu bat galdetu nai neuskitzu baña... ¡iiño! purruztadaren batekin urtengo ete zaran bildur naz.

—Ik neri, itaun gaiztorik egingo daustanik etxoate, ta egin egikek galdera ori. Yakin badakit, erantzungo dauat; ire galderak erantzutea errez izaten eztan arren. Zer nai dok yakin?

—Txakurrak, zergaitik bata-besteari usain egiten dautse atzean?

—Aaara ba! Ointxe be badakaztak arri-abarra! Baña esango dauat, bayakiat-eta. Urte pillotxo dala, munduko txakur guztiak batzarra izan yoen Paris'en. Euren buru egiten eban txakur andi bat, ¡uau-uau! izketan egoala, entzuletariko batek uzterra yaurti yoan, eta buruzagiak amaitutzat laga yoan batzarra, areik-eta lotsagabea nor izan zan igarri arte. Ondiño etxoek aurkitu ta

orregaitik yabiltzak usainka alkarri, usañetik arrapatze-ko asmotan, uzterra yaurti ebana.

—Orren iraunkorra al da txakurraren putsa?

—Orixe dok nik eztakidana.

\* \* \*

—Zure erantzuna entzun ondoren... etxatzula atsegin izan nere galderea iruditzen yat. Pekatu egin al dot?

—Ez. Uzker da bere ondorengoetzaz edozein ordutan da edozen lekutan (mayan-edo) yardutea etxagok ondo, baña eztok pekatu. Vinuesa Aita Yosulagunak auxe esan yoan: "Uzker da kakatzaz yarduten danean ez yakola Yaungoikoari irañik txikiena be egiten". Alan izango dok arek diñoanean. Izan be, bear-bearrekoak dozak gizona-ren osasun ta biziarentzat egikizun orreik.

Cervantes'ek be gauz politikak idatzi yoazan gai orretzaz. Or gordeta daukodan euskal-idatzi zar baten be kakatzaz bertso ta kanta barregarri asko dagok. Orra bat edo beste :

Kaka zuretzako ta  
kaka niretzako  
kaka bearrekoa  
edozeñentzako.

Aberats asko dago  
kaka ein nai ta ezin.  
Eiten daben apurra  
bera zirin-zirin.

Orrela dabiltzanak  
agirian dabe  
matrail-azurra zorrotz  
kolorea berde.

—  
Axe bai mokordua  
neska batek eña  
pixatu neban eta  
Zazpi libra eña!

Orrek bai osasuna  
ori bai gordiña  
matrallak gorri-gorri  
; Neskato bikaña!

—  
Errenderitik nator  
kaka ein eziñik  
txanpona emango nuke  
egiteagaitik.

Eta nork ez legorte orrek yo ezker? Ni<sub>k</sub> neuk be  
bai ta beste edozeñek be bai: ta ez txanpon bat bakarra,  
zazpi be bai. Esteritxok, idorti?

—Ni... ondo nabil ortik, Yaunari eskerrak.

—Ezagan dok bai; ixilpean bota dokan uzker ori  
ezea izan dok beintzat.

—Niik?

—Bai; euk. Iru lagun dagozan lekuan, ortaz, guzu-  
rra esan leitekek, baña bi dagozan lekuan ez.

—Iiño! ederra bota daustazu!

—“Ederra” euk bota dok! ;Aldeik ortik saskel  
orrek! Bai, aldeik ortik kakusain, ik ulertzen ez dokan  
izkirimiri bat esan bear yautzet nere adiskidieri-ta.

\* \* \*

Ikastolako mutikorik ergiena Pellotxu zenun. Orre-  
gaitik, On Kelemente eskola-maixua, arekingo yardune-  
tan, atsegin-aparretan izaten zan. Ta alakoetan, adarra  
yoten eutson, aren ateraldiak ausnartu al izateko.

—Iri —iñotson lengo egun batez— oker ezarri euen  
izena. Iri, Pellotxu'ren lekuan, Nilelo ezarri bear euen;  
orixe az da.

—Ba... zuri egoki ezarri eutzuen Kelemente izena,  
Kalisto etzara-ta —erantzun eutson mutikoak—.

—Beno; zirikadak alde bat laga-ta, asi gaitzean sa-  
yoetan. Ara: uste agik, artzain-makilla luze bat dekala  
eskuetan. Egizak bi zati, erdi-erditik. Bi zati orreikin  
egin egik beste ainbeste; erditik ebaki biak. Zenbat zati  
lortu dozak?

—Lau.

—Igarri dok. Sei, esango uala uste nayoan.

—Esan dautzut ez nazala, Nilelo. Zu bez, Kalisto.

—Ez adi asarratu mutil! Eta yarraitu dayagun.  
Orain, artik beste makilla bat. Erditik bi egik. Zatieta-  
riko bat, erdibitu egik barriz. Ta onen zati bat, au be  
erdibitu. Zenbat zati lortu dozak?

—Sei.

—Ez, yauna. Arrapatu aut! Bost dozak.

Papel luze batekin egin eben sayua ta... alaxen zan, bost atara ziran, iru bidar zatitu arren.

—Iiño! Ointxe pozik zagoz ba, e? Baña “Nilelo” ri lagako baleutse, “Kalisto”ri itanduten, ikusiko genduke nor, nor dan.

—Lagatzen dauat. Asi adi.

—Ara: Nik amar urte dodaz. Nere aitak, iru aldiz geyago nik baño. Elduko ete da egunen bat, nere aitak nik baño bi aldiz bakarrik, urte geyago izango dauzana?

—Ori ezin leitekek gertau egundo be. Ortarako ire bizitzako erlojua gelditzeka ibili, ta ire aitarena lotu egin bearko litzakek.

—Ba... bizi bagara, bakit nik ori noiz gertauko dan.

—Zer yakin bear dok-eta!

—Ezetz? Orra: Nik, gaur, amar urte dodaz. Nire aitak iru aldiz geyago; ogetamar. 10 da 10 da 10 = 30.

Amar urte barru, nik ogei izango dodaz, eta nire aitak berrogei. 20 ta 20 = 40. Bi aldiz geyago; ta ez iru aldiz gaur daukozan lez.

Artizu ori ogi-gañean!

On Kelemente'k buruari atz-egin eutson, eta disimulatze aldera, galdetu:

—Ze ordu dok?

—Eztakit.

—Eztakikala? Zertarako daroak ba esku-muturreko erloju ori?

—Ibil-aria etenda dauke. Gañera burpil bat edo beste eskaz dauz.

—Orduan... ori eztok erlojua! Ori karramarro bat dok! Yaurti egik erre kara; bear bada uretan, ibili egin-go dok.

—Eztot yaurtiko. Alde batetik, aitaren erlojua bari rik nerea geldi egonik, yokoa irabazi dautzudalako; ta bestetik, erloju onek, egunean bi aldiz ordu ziu rra eskintzen daustalako: Goizean eta gabean. Eskolaratzeko ta ogeratzeko. Bederatziretan bai dago lotuta.

—Oori dok azak emotia! Bien, Pelotxu! Gaur astiñaldi ederra emon daustak, baña ala ta be, pozik netxiok. Orain yoan adi etxera ta... biar arte.

—Biar arte, On Kelemente yauna. Emen izango naz bederatziren puntuan.

—Ortan ziur nayagok, erloju ori galtzen ezpadok beintzat.

\* \* \*

Bi mutiko, bakotxak bere etxeko andikeriak esaten egozan bata besteari.

—Gure aitak, Bilbora eldu zanean, nun bizi be etxaukan, eta orain, iru etxe andiren yaube dok.

—Ba... gure aita, bi abarketa zarrekin eldu zuan ona, ta orain bost milloi yaukazak.

—Eta zertarako yozak ire aitak, bost milloi abarke-ta-zar?

\* \* \*

Samuel judutarra ogean dago azkenetan; bere emaz-

te ta seme-alabak inguratzen dabe; baña eztauz ikusten. Betazalak makur dauz.

—Zu, ene emazte ori —galdetzen dau gexoak— nun zara?

—Emen nago, Samuel, zeure ondoan.

—Eta Levy, ene semea, aitaren azken-orduan, nun da?

—Emen nago aita, zeure alboan.

—Eta zu, Rebeca, ene alaba maitea, zu be emen al zagoz?

—Bai, aitatu laztana. Zeure ondotoxan nago.

—¡Orduan zein arrayo dago ba dendan?

\* \* \*

Begi-bakarrari barre egin eutson Pello'k. Apurtxu bat mindurik esan eutson arek :

—Nai al dok yokatu nork geyago ikusi?

—¡Je! Ez egiztak barrerik erazo.

—Barreak alde bat laga-ta, bota ogei ogerleko!

Yaurti ebezan mai-ganera ogerlekuok trabenariaren aurrean. Bereala bai diñotso begi-bakarrak :

—Zenbat begi ikusten daustazak neri?

—Bat!

—Nik iri, bi!!

Geyagoko bage, begi-bakarrak yokoa irabazi.

\* \* \*

—Aitita; gaur ikastetxean sugestiñoatzaz yardun dira. Zer da sugestiñoa?

—Kontxo! Etxakiat erantzun al izango badauat. Sugestiñoa... alako buru-auste bat edo... guzur-ustea, buru-berotzea edo...

Dana dala, zerbait indar dauan zer bat dala uste yoat. Baña lagaiztak bakean, orrekin zer ikusirik eztaukon yazokuna kontau bear dauat-eta.

—Zeuk nai dozuna. Ekin!

—Ara, ba. Igazko udan Lekeitio'ko Karrazpio-ondartzan, busti-aldi bat artzen ebillala, balio andiko ereztuna galdu yoan andiki baten emazteak. Axe naigabea! Millaka ogerlekoak balio yuazan.

Itxas-beran, mundu guztia ibili zuan erestun orren billa, baña ¡nok aurkitu pitxia ondartzan? Lastotzan yostorratza aurkitzea baño zallago dok ori.

Urrengo goizean, senarra, ondartza baztarreko aitzetara yoan zuan arrantzura, kañabera luzeakin. Eta orra, ereztuna emazteak galdu eban lekutik urbil, arrapatzen yok arrain-gorri eder bat. Iriki yautsan tripea ta... ¿zer aurkitu eutsola uste dok barruan?

—Erestuna!

—Perretxikoak! Iruntzi-barri eukon karramarrua!

Ora nik, ikasbide lez, hurua berotu iri neuk nai nebana esan-azteko. Orixe dok gitxi gora-bera "sugestiñoa". Ta ortarako, guzurraikin asi nok, gai orretzaz zer ikusirik eztauna kontauko dauatela esanaz.

Aspaldiko urtetan amaika alako kontau yauskuek. Ta amaika ereztun aurkitu be bai batobatzuk. Begitu euren atzamarretara.

Ez adi ba gertau edozer sinistera.

\* \* \*

Goiko gayari yarraituaz, beste au kontauko dauat.

Gure etxosteko Egaña kalean bizi dan Patri'k, etxoan sinistuten burukeri orreikin. Egun batez alkartu zua-zan bere lagunak, ari sinistu-azteko. Gexorik bialdu bear ebela etxera igande arratsaldean bururatu yakoen. Bururatu ta egin.

Arratsalde ortan, kafe-etxean, oitura eben mayan, Patri'ri itxaroten egoan adiskedetariko bat, Erramon.

Patri, bazkariaren matrail-gorriaz eldu zanean, arpegi begira-begira yarririk bai iñotsok Erramon'ek:

—Zer yazoten yak, Patri? ez ago ondo ala?

—Bai arrayoak ezpadira! Zer ba?

—Arpegi larria daukok. Begi-ertz illuna.

Patri'k etxoan ezer esan, baña kezkatxoa barruan sartu yakoa.

Gerotxoago bestea eldu zanean:

—Zer da, Patri? arrapau ein da ala? Zeran kolorea daukak. Belarriak be zurituta. Derio'rako bidean ikusten diranek lez.

Patri ixilik, baña kezkea barrurago.

Eldu dok irugarrena; onek etxiñotzak ezebe. Danak bardin agurtzen yozak. Baña aldixoa igaro danean, Patri'ri begira asten dok. Barriro be begiratu begiz-begi, ta orduan bai iñotsok Patri'k:

—Zer yaukat orrenbeste begiratzeko?

—Ori euk yakingo dok; baña arpegi orrekin ni einintzoan urtengo etxetik. Yoan adi ogera.

Patri zuritzen yoayan, bene-benetan, apurka-apurka.

Berak, bere barrua estutzen yoan, iñotsoena egia izango zalakoan. Laugarrena etorrira, beste ainbeste esan eutsonean, Patri, korroskadaka asi zuan. Mantzanillea eskatu yoan, eta artu ondoren, albo-alboka ogera yoan zuan. Orreri be iri yazo yatana gertau yakoa.

Len esan dauatan lez, ez ba edozer sinistu; ezta be onelako yolas gaiztokin iñor samindu. Iñoiz, makalik dabillanen bategaz aurkitzen ba az, “atzo baño arpegi ohea dozu” esan egiok. “Egunetik egunera sendotzen zoazala igartzen yatzu” ta abar. Orrek indar emongo yautsok, bere makal-aldia azpiratzeko.

\* \* \*

Gure Erria txikia dan arren, munduko edozein aldean aurkitu oi dala euskelduna, sarri entzun dot, eta zuek be aituko zenduen.

Ezagutza ta agur maitagarriak maiz, eta izkirimiri barregarriak eurrez sortu oi dira, alakoetan.

Azken oneitako bat edo beste kontauko dautzube-taz gaur, txolarte au ortarako dogun ezkeru.

Bermiotar itxasgixon batek (pillotua berau) Egip-to'ko Cairo'ra lenengo osterea egin ebanean, emaztea eruan ei eban lagun bere ontzian. Uria ezagutu bear bata, ango kaleak-zear yoyazalarik, pralle bizarduna ikusi eben aurrez-aurre; baña ez edozelako bizarrekin! Zabal da luze, gerririk-bera sabel-ganeraño elduten ei yakozan.

Senar-emazteon ondolik igarotzean, bermiotar ema-

kumeak bere esakera bereziaz esan ei eban arriturik :

—¡Abe, Marie! Jokatu neki, bizarrok eztirala be-riak!

Prallea bapatean lotu, ta bere esku-gañetan bandeja baten lez bizarrak arturik, irriparrez eskiñi ei eutsozan esanaz :

—Nai al dozuz ikusi, neureak badira ala ez?

Andreak, apurtxo bat lotsati, tirakadatxo bat egin ei eutson, orrela igarririk, eleiz-gizonaren okozpeko lur-marduletan txairo erne ta azitakoak zirala bizarrok.

Esan bearrik ez, prallea euskalduna zala ta barri-keta gozua izan ebela. Eta ondoren, bermiotar pillotua-ren ontzian alkarrekin bazkaldu eben irurak, Izaro'ko bis-aparretan bailegozan lez.

\* \* \*

“Kirikiño”ren “Abarrak” idaztian irakurria dot bes-te au :

Ago-aldeko Aprika itxas-bastarrea, Bilboko itxas-intzi bat galdu zan arkaitzetan ostopo egiñik.

Al ebanak al eban lez, batzuk igeri ta beste batzuk txalupetan, liorreratu ziran itxas-gixonok.

Txalupetariko baten, Ibarrengelu'ko bi morrozko, angoo ondartzara eldu ziraneko, txara batetik santzoka ta garrazika urten ziran baltzak, euren billa.

Laizter inguratu ebezan, eta euretariko iru, gure mutillen txalupan sartu.

Bereala, ibaya-gora abiatzeko agindu ei eutsen lur-

barrurantz. Gure mutillok giro txarra asmau ebelarik, ba-tak esan ei eutson besteari :

—Amutil, emen etxagok beste biderik; kokotetik eldu ta uretara bota bear yuaguz iru baltzok, salbauko bagara.

—¡Koontuz gero, mutillak! geu be orretarako obeak gara-ta! —erantzun ei eutsen baltzetariko batek.

Eztakigu nundik nora yo eban euskeldun arek baltz arein artera; baña bai ibarregelutar biak, sano ta sal-bo, etxera yo ebela.

\* \* \*

Urengo au politagoa dozu ondiño.

Ontzi-burua, kapitana, elantxobetarra. Bere ontzia-rekin Canada'n dozue; Toronto'ko portuan. ¡Lekutan yagok ori!

Kalea-zear uria ikustatuz, plaza batera yo dau. Emen, yente-pilla, biribil-biribil erroskilla baten antzo. Zerbait ikusgarri izango dala-ta, urreratzen da bertara. Yentearen erdian, inditar bat dago bere yantzi apañekin, turbante ta guzti. Lurrean sartuta aga luze bat; eta agea-ren oñean kaxa bat. Kaxa onetan suge izigarria ikusten da, au be biribil-biribil.

Daborduko, inditarrak asi dau bere lana : “¡Gora!” agindu ei eutson sugeari. Ta sugea espiral baten gisan, agearen erpiñeraño igon ei zan.

“¡Beera! esan ei eutson orduan; eta sugea beera ya-tzi zan.

“¡Gora!” barriz. Sugea asi zan gorantz, eta aga

erdiraño eldu zanean... “¡Geldi!” oyu inditarrak. Eta  
sugea geldi lotu ei zan agearen erdi-erdian.

Gure itxastarrari, ikusten ebanak eta entzuten eba-  
nak, barrua pustu ei eutson, esan erazoaz :

—¡Oori euskeraz dok!

—Egon adi ixilik, neu be elantxobetarra nok-eta!  
—erantzun ei eutson “inditarrak”.

\* \* \*

Au jazo zala urtetxoak dira.

—Beste batzuek be yoan doaz ta... neu be Ipar-Ame-  
rika’ra noa —esan eban Etxabal Mendexa’ko mutil  
gazteak—. Baña ni, ni ez naz yoango mendira artzain, et  
et et! Mendian bizitzekotan, bertan dogu mendirik as-  
ko. Ni, Nuebayor’era yoango naz, ta an, lenengo, aldo-  
dan lez ingeles ikasiko dot, eta ondoren, ogibide on bat  
errez lortu.

Esan eta egin.

Yoan zan uraz-bestaldeko uri andira. Eldu bezin  
azkar, yatetxe bateko sukaldean morroi sartu zan: “Su-  
kaldariari lagundu, azpillak garbitu ta bastarrak zuri-  
tuaz, ingeles bapo ikasiko dot” —esanaz—.

Bi urte galantak egin ebazan lanpide ortan yatetxe-  
tik urten baga.

Ango mirabe, morroi ta bezeroen izkuntza polito ba-  
ten ikasi ebalarik, urten zan egun batez ogibide obearen  
billa.

Ta axe arrigarria! Batean ta bestean, iñortxok ez  
eutson tautik be ulertuten.

Zelan izan eitekean misterio ori?

Errez. Gure mutillak morrontza egin eban yatetxea,  
Chinatarrena bai zan.

\* \* \*

Estrepausu ori gora-bera, etzan baña izutu gure mu-  
tilla. “Orain, Xangai’ra yoango naz, euren izkuntza da-  
kidan ezker”, esan eban bere kolkorako.

Illabeteren buruan, Xangai’ko ostaturik oneneko su-  
kaldari zan.

Konfusio’ren izkuntza ezeze, euren ondorengoan abo-  
zapayaren barri be zer bait ikasi ebala Atxabal’ek, antxe  
ikusit zan.

Orrez gañera, euskal-saltza bat edo beste egiten bai  
ekian, eta ostatuko yan-gela gonbururaño betetzen asi zan  
egunero.

Ostatuko asionista nagusiak ori ikusirik, sukaldaria  
agurtu-nai izan eban.

Zorion egin ondoren, bai diñotso :

—Zu etzara emetikoa. Nundikoa zara? Zure arpegi  
ta yasak, europarra zarala diñoste.

—Bai; europarra naz, aintzakotzat artzen ezpagai-  
tue be. Europako bastarrak urriñenatarikoa. Bastarrak  
politnenatarikoa. Gogoratu bakarrak begiak bustitzen  
daustazan txokokua. ¡Euskelduna!

¡Axe besarkadearen gozoa, luzea, estua! Burrukan  
ebiltzala irudian, bi euskeldunak. Zornotzarra bai zan  
nagusia.

Askatu ziranean, bai diñotso sukaldariak nagusiari :

—Arrayua! alkondara osoa koipez loitu dautzut.

—Ezta ardura. Gaurko euskal-koipe onek, omen dagizta.

\* \* \*

Amar urte igazi baño len, Atxabal ausardia, aberastuta, Mendexa'ko bere etxean sartu zan espanetan kantar zar au eroala :

Amar urte oneitan  
palta naz etxean ;  
ama ikusi bage  
denpora luzean.  
¡Pozaz “ilgo” dira  
gaur gure etxean !

\* \* \*

Uri artan, barri andi bat zabaldu zan : Erregea etorrala uritxu polit a ikustera.

Erregea aurrez-aurre ikusteko aukera ori, iñok ez eban galdu nai izan, ta bazkal-ondoan mundu guztia an yoan zan uriko plazara, euren solo ta baratzetako lanak bertan-bera laga-ta.

Alkate jaunak, bere uriko mugan itxaron eutson Erregeari. Agurrak alkarri egin ondoren, Erregeak bere tribulian zar-eraso eban alkatea. Bai yoyazan, traka-traka zaldien aptax-otsean.

Erregeak itandu eutsan alkateari :

—Emengo solo-baratzetan, lanik asko dala oartu daroat, baño ez dot iñortxo ikusten lanean. Alper ete dira zure errikideak?

—Ara, yauna —erantzun eutson alkateak—. Esango dautsot, ba : Emengo inguru guztian zabaldu da Errege berorren etorrerea. Ta Errege berori aurrez-aurre ikusi nairik, mundu guztia yoan da plazara, Errege berorri arrera andi bat egiteko asmoz.

Erregeak ez eutson ezer erantzun. Ixilik yarraitu eben aurrera.

Urira eldu baño lentxoago, Erregeak, andratxo bat ikusi eban soloan zintzoro lanean ari zala. Geldi-azi eban tribulia. Yatzi zaz. Yoan zan, andrea lanean egoan lekura ta... galdetu eutson :

—Andratxoa : Zer dala-ta lan egiten dozu zuk, beste guztiak yai egiten ba'dabe?

—Aaara ba, yauna —erantzun eutson andreak aurrean eban gizona nor zan yakin bage—. Nere senar ta seme-alabak, urira yoan dira. Erregea ikusi ta agurtu bear dabiela esanaz. Baña nik, gure soloetan lan asko egiteka egoala ikusirik, bertan gelditu naz, aldodantxoa egiñaz.

—Ooondo baño obeto egin dozu! —erantzun eutson Erregeak—.

Ta urrezko diru eder batzuk emonaz esan eutson :

—Zure senar ta seme-alabei, etxera datozanean, auxe esango dautsazue : Eurak Erregea ikustera yoan ba' dira, Erregea zu ikustera etorri dala.

Aaxe Erregea!



\* \* \*

Itz gitxitan "konpendio" ederra dau urrengo doan eibartarraren ateraldi onek :

- Zelan abil, Kaxiano?
- Gaizki; gauzonik jan ezinda.
- Urdalletik jota ala?
- Ez; poltsikotik.

\* \* \*

Pello ogibide billa yoan zan.

- Bai aldakizu irakurten eta idazten?
- Irakurten ez, baña idazten bai.
- Ia, idatzi egizu arbel ortan.
- Drizt-drazt! egin ebazan zirri-borro batzuk.
- Zer yartzen dozu or?
- Esan dautzut ba, irakurten eztakidala.

\* \* \*

Koxe Torronteru bermiotarra amazpi urtekin kosiñeru zan atzerriko itxas-ontzi baten.

Gastea zalako-edo, ontzi-buru ta ondorengoak, adar-jotze ta jolas astunak egiten eutsezan gure mutillari, onen lepotik barre egiteko. Ala ta be, bermiotarra etzan egundo asarratuten. Bere patxadea ez eban galduten.

Eruapen andiko mutilla eretxirik, egun batez deitu ta esan eutsen :

- Koxe; geyago eztautzugu egingo barrabazkeririk.
- Ondo da —erantzun eutsen—. Neuk be eztautsot geyago txixarik egingo zuen afariari.
- Zelako barrabazkeria, alako zarrastadea egiten eutsan kontixu.

\* \* \*

Ego-aizea baiño zarrago da gure izkuntza. Ta beraulan be, antxiñakoak dira Euskerari buruzko ardurak eta esamesak. Izan dira, aurretiaz illetak abestu izan dautsezanak, ta Euskereak entzun egin dauz zorionez; illak ezbai dau ezer entzuten.

Aurten dira 42 urte, Zamarripa abade euskalzale yaiok idatzi ebala urrengo ZAPARRADA ori :

- Bazabiltze zuek, euskalzaleok, euskereari indarra emon gurarik; baña alperrik, Erramon.
- Alperrik diñozu? Geuk eztoгу uste.
- Bai, alperrik. Euskerea badoa.
- Nora, Purden? Atzo esan zenduan eztoala iñora, euskereagaz ezin oan geintezezala iñora...
- Eneizu esan nora doan, baña gauza ziertua da eztaukala luzarorako bizirik. Laster il bear dau.
- Antxiñatik dago ilteko.
- Ba, itxi geldi. Ogei urte barru...
- Epe laburra emoten deutzazu. Orain dala milla urteko igarla batzuk andik eun urte barru ilgo zala esan eben, eta, bakutsu?, bederatzireun urteko utsa egin eu-

tsen. Eztakit zuk zenbatekoa egingo dautsazun. Baña uts egingo deutsazun urte bakotxeko eun ogerleko emon bear hazenduz...

—Barriketak dira orrek. Nik diñodanak eztauka utsik. Euskerea ilgo da laster. Eztauka beste erremedio-rik. Gaurko jentea ezta lengoa. Gaurko jenteak ezta gura berba askogaz gauzea esateko berbetarik. Gaur egune-ko jentea arin bizi da, arin dabil eta arin egiten dituz bere gauzak eta albait ariñen ulertueragin gura dituz bere buruko gogamenak eta bere biotzeko gurariak. Eta euskeraz ulertueragiteko denpora asko bear da. Erderaz esaten dira arin gauzak.

—Ara, Purden, nik eztaukat zer txarrik erderearen-tzat. Nitzat ederra da euskerea ta ederra erdere be. Ba-ña zuk erdere daukazu bakarrik edertzat, eta...

—Nik diñodana da erderaz buruko gogamenak eta biotzeko gurariak ariñago ta berba gitxiagogaz esaten direala.

—Zeintzuk gogamen eta zeintzuk gurari direan.

—Eztago zeintzurik. Esate baterako: emen ondo bi-zi gareala esateko, berba gitxiago bear dogu erderaz eus-keraz baño. Euskeraz esaten dogu: emen ondo bizi ga-ra: lau berbagaz. Erderaz barriz: aquí vivimos bien: irugaz.

—Ba nik esangotsut zuri orain beste gauzatxu bat. Zenbat berbagaz esango zeunke zuk erderaz emen ezta-torrela astorik? Esaizu albait gitxienagaz.

—Aquí no viene ningún burro.

—Ta? Zenbat berba dira orrek? Bost? ezta? Ba eus-keraz irugaz esan lei ori: emen eztator astorik. Orregai-

tik diñotsut gogamen eta gurari batzuk ariñago esaten direala erderaz euskeraz baño, baño beste batzuk oster a euskeraz ariñago.

—Egiaz, esakune orretan erdereak euskereak baño berba bi daukaz geyago. Baña silabatan eztaukie atara-ño-ko alderik. Ara: a-quí-no-vie-ne-nin-gún-bu-rr-o: be-deratzi sílaba. E-men-ez-ta-tor-as-to-rik: zortzi.

—¡Ai!, orain silabak (izkayak, euskeraz) dakazuz gogora? Ondo dago. Ba, neuk erakutsiko deutsudaz bu-ruz ainbat berba euskerazko, erderazko esangura hardi-ñekoak baño izkai gitxiago daukienak: A-aquí. Jan-co-mer. Antxiña-antiguamente. Uts-vacío. Bart-an-och- e. Antz- semejanza. Zin-juramento. Lar-demasiado.

Ta ETZI-gaitik zer diñozu? Ezin zinei aurkitu erde- ra guztian bere esangurako berba bat... Erderaz ETZI berba bigaz esan bearko dozu beti. Olantxe: pasado mañana. Ta berba biotan zenbat izkai ikusten dozuz? Sei. ETZI-an baño lau geyago.

—Ori olan da, baño...

—Eztago bañarik. Esan deutsut eta erakutsi deutsut erdereak berba asko euskereak baño laburragoak ba- daukaz, euskereak be badaukazala beste asko erdereare- nak baño laburragoak.

—Orrek guztiok egiak dira baño...

—Oster be? Berba laburdun berbeta gura dozula diñozu. ¡baña zeu ondo luzea zara gero...!

\* \* \*

Purden areri, Zamarripa'k, esan baleutso, ETZIA-

GO itza adierazteko senbat itz bear ziran erderaz, itz bakar ori esateko bost berba bearko euzan gutxienez : Día después de pasado mañana.

Beste au be ezta makala alako kontuekin zirikatzen gaituenerako : OLLOKIZ ASE NAZ = Me he hartado de carne de gallina.

Ta ori, ezertarako balio eztaben bi achegaz eta alkarrekin burrukan dabilzan bi itz-aurreko edo preposizioz.

Ego-aizea baiño zarrago da gure izkuntza, baiña ezta ilgo.

\* \* \*

Yoan zan egun batez soraluzetarra Azkoiti'ra. Gure praka ariñoek eroazan; baita abarketak be. Baña oneik, zar zamarrak eta illunduak.

Ango denda baten abarketa txuri ederrak ikusi ebazararik, sartu zan urratuok aldatzeko asmoz. Ezingo esan erosteko asmoz, poltsikoak murrus eroazan da.

Plaxentxiarrak, praka arin da abarketa barriekin bere burua txoria baño ariñoago nabaitu ebanean, ordañaren orde galdera au egin eutson dendariari :

—Ikusi al dozu iñoiz plaxentxiarrik antxixtika?

—Ez.

—Ointxe ikusiko zu ba!

Ta aintxixikeari emonaz, oiñaztua baño ariñoago aldendu zan ango inguruetatik.

\* \* \*

Txoperra etxekandreari itxaroten dago bere belbikakin etxaurrean.

Andik igaro dan adiskide batek galde :

—Zer egiten dok emen?

—Gure etxekandre sorgiñari itxaroten nayagok, bere lagun batzuen etxera eruateko, an brixkan egin bear daula-ta.

Ori esaten egoan une artan bertan urten zan atsoa, ta entzun egin eban burtzañak esan ebana.

Urrengo egunean salatu eutson etxeko nagusiari, burtzañaren ausardia.

—Neuk erakutsiko dautsot orreri bear dan lotsea gordetzen, etxekandreari —esan eban nagusiak asarrekor—. Ointxe bertan ganera! Esaiozu etorri daitela, neure despatxura!

Yoan zan burtzaña dardakadan. Nagusiak esan eutson :

—Exeri zaite or, Braulio.

Eta arasa batetik Borgoña'ko ardaurik onena atarez esan :

—¡Bapo, Braulio! Ni enintzan ausartuko ainbeste esaten, baño egi galanta bota eutsozun gure atso arraio orri. Egiñen ori ospatzeko edan daiguzan dangada batzuk. ¡Areik asmau eben asmatzeko erromeria!

Bitartean etxekandrea itxaroten egoan, txoperra buru-makur noiz azalduko ete zan, luze eretxita. Otsein ori nagusiak garbitu egin ete eban-edo ikusteko, kezkatu urreratu zan despatxuko atera, ta ixil-mixil, erdizka iriki.

Nagusi ta burtzain, euren edontziak yasoaz kantari ikusi ebazan :

Kanta oneri eragoioen :

Atso zarra bibolin,  
Ire onak egin din ;  
Ortzak ere juan zaizkin  
Deabru zarra dirudin.  
Eta ia, ia, ia,  
Atso zarraren pantasia,  
Artzen bajonat illintxia  
Erreko donat ipurdia.

\* \* \*

Bi emakume adiskidek alkar topo egin eben kalean.  
Iru urte inguru ziran alkar ikusi ez zirala ta... ba euken  
alkarri zer kontau!

Bapatean diño batak :

—Aizan, Pelisa : Eztiñoztan ezer, alako ire maita-  
sun andi aretzaz ! Eure Paco kutunatzaz !

—Ezeiztan aitatu be egin !

—Zer ba ? Asarratu egin al ziñien ?

—Bai zera. Urte bi donaz ezkondu giñala.

\* \* \*

Mutikotxua antxe ebillan kaleko atean tirriña yo  
guran eta bertara eldu eziñik. Txikitxoa bai zan, ta ti-  
rriña goitxo egoan.

Ori ikusirik yaun batek dirautso :

Itxaik apur bat, mutiko ; neuk ots-egingo yuat ire  
ordez.

Yo ebanean, mutikotxuak dirautso :

—Eskerrekasko ; baña orain alde daigun azkar eme-  
tik, zartadaren bat emon eztaiguen.

\* \* \*

Bi ola andiko buruzagien alkar-izketa dozu au :

—Bai al dozu zuk, zeure landolan anderaño idazka-  
ririk ?

—Ooba ez ! Oona ganera ! Trebea ! Sei izkuntz da-  
kiazana. Ta zuk ?

—Nik sei daukodaz, baña bakotxak bere izkuntza  
besterik eztakie.

\* \* \*

Bilbon, San Antongo eleizan gertau zan au :

Ijituek, ijitotxua bataiatzera eruan eben.

Ur-zaparradotxoa burutik-bera bota aurretik, umea-  
ri kokota estaltzen eutson yantzitxoa etzeratu yakanean,  
kotxaduari, erlekizten antzeko zanbro itzelak ikusi eutso-  
zan apaizak. “¡Kontro!” —esan eban onek errukitu-  
rik—. “Ume oni Penizilina ezarri bear yako”.

—Ze Penizilina ta Penizilina oste ! Neu naz ume  
orren aita, ta orreri Manuelillo ezarriko dautsozu, zaz-  
tadaren bat artu nai ezpadozu beintzat !

\* \* \*

Uleterio, kalea-zear dabil ardi galdua lez. Gosea gose dau, baña txakurtzikirik ez poltsikoan. Yatetxe baten aurretik igaro danean, orra, ikusi dau idazkun pozgarria: "Sartu zadi ta yan egizu nai dozun guztia; zeure billobak ordainduko dau zure ordezt".

—Auxe dok auxe, mauka! —esan eban gosekillak.

Sartu zan yatetxean; yesarri zan mai-aurrean; yan ebazan angulatxoak, ollaskoa, okelerrea ta mai-ganekoak, ardo biziarekin ondo bustita.

Mauka amaitu ebanean, zapiñoakin ezpanak ondo igurtzi ondoren, yakiña, ba yoian kalera ordaindu barik; baña yake zuridun morroiak kaixio egin eutson.

—Zer diñostazu? —dirautso asetuak—. Ez al da ba billoba, ordaindu bear dauana?

—Bai, yauna. Alaxen da. Kontu au ezta zurea, zure aititarena baño.

\* \* \*

Ama klinikara doa aur barri baten billa.

Etxetik ateratzean bai diñotso Pellotxu sei urteko semetxoari:

—Zer nai dozu ekarri daitzudan, laztana? Mutikoa ala neskatotxua?

—Neri... bizikletea ekarri, amatxo.

\* \* \*

Bata bestearen atzean, lau izkirimiritxu doaz.  
Balmaseda'ko Aste Santua zear yazorikoak dira.

Bizkaiko uri ortan ospetsuak izaten dira prosesioño orreik. Biziki egiten dabez. Illabete gutxienez yarduten dira sayoak egiten. Erriko yenteak izaten dira, nekaldiko pertsonajeak gizontzen dabezanak.

Urte batez, Cubera eritxon bati agindu eutsen Judas'en "papela". Ondo ikasi eban onek bere lana. Alan iñotsen, beintzat.

Au, azkenengo egunerarte ixilik egon zan. Eguasten Santu arratsaldean bera etzala urtengo prosesioñoira esan eban, 30 txanponak emoten ezpaetsezan.

Emon ete eutsezan? Bearko; beste bat gertatzeko astirik ezegoan da.

\* \* \*

Beste urte batez, "Cuca" izenez ezagutzen eben neskatilla eder bat urten zan Madaleniaren irudiz.

Illabeteren bat egin eban onek be sayoetan. Sentimentu andiaz egiten zun bere lana. Bene-benetako Madalenia irudian.

Baño prosesioñoian urten zanean, beste guztia egoiki egin arren, negarrik ez eban egin.

Uts ori zer dala-ta egin ete eban galdetu eutsenean:

—Zelan egingo neban ba, entsayuetan egortu zitzaidan negar-potzua —erantzun eban—.

\* \* \*

“Mero” eritxonari barriz, Fariseo bat gizondu edo iduritu bear ebala agindu eutsen. (Balmaseda'n, soldau erromatarrei Fariseo izena emoten deutse).

Tanborrerua zan, “Mero”, eta atabala yoaz urten bearra ebala esan eutsen. Baita urten be, patxadaz, sabel-ganean taparrata, ta ezpaneaz txokor andia kea dariola, eroala.

Prosesiño Santuarentzat begiramen bageko yokaera orrek arritu euzan eraltzalleak eta an yoan yakozan, jarren! txokorra bota eiala aginduz.

Orduan “Merok” erantzun eutsen :

—Baña zer? Fariseoak gozak ala ez gozak!

\* \* \*

Beste onek be badau bere baba-lekia, norbaitek ezarri nai badautso.

Bakizue zer yazo oi dan, bai zinean naiz bai antzerkian. Giza onaren lana egiten dauana maitagarri izaten da, ta giza txarrarena gorrotagarri. Ez gara konturatzen, txarrik ezpalego, onik ezlegokela, ta onik ezbalego bez, txarrik.

Alako zerbait gertau yaken Balmaseda'n, Kesukristoren ezker-eskubitan yarri ebezan bi lapurrei.

Dimas'ek baño obeto bete eban bere lana Ulogio arotz-langille zintzoak, baña erriak begitan artu eban,

Lapur-Txarra ezizena ezarririk. Bestea... lapur oona! zenun.

Egun batez, bi lapurrak ardangelan egozalarik, dana zan zurikeria Dimas'entzat; deztañak Ulogioentzat. Au, aspertu zan kontixu letaño gogaikarri ori entzuten, eta bizi ta zorrotz aurrez-aurre yarri zan, inguruan egozan guztiekaz, iñoala :

—Nor da emen lapur ona? Yakin dagizuen be, ori ez beintzat! Dimas'ek lapur izatea laga egin eban; txaketea kanbiau eban. Beraz lapur lez, lapur txarra, ori da! Lapurra, lapurra bada, neu naz emen lapur ona! Nik ez bai neban ukatxik egin! Lapur izatea uzten dauan lapurra ezin leiteke izan lapur ona!

Asikeran esan dautzuetan lez, zeuok ezarri pilosopi orreri, deritxozuen baba-lekia.

\* \* \*

Aspalditxoan naigabeturik dabil Koxepa, senarrak illabete batzuetatik onantz, zurrut lartxo egiten dabelako. Baiña erabagi sendoa artu dau. Sendagillearengana yoan da, griña arrayoa senarrari kendu al izateko zerbaiten billa. “Zer egin daiket?” diñotso.

Osagilleak osakaia emonaz dirautso :

—Errez-erreza dozu ori, andrea. Ara; bete egizu edontzi bat urez; yaurti egiozuz iru edo lau tanta osakai ontatik; egunero, e? Ta egon zaite ziur, griña txar ori galduko dauala illabete baiño len.

—Bai, baiña...

—Ez al dozu konpiantzarik osakai onekin?

—Konpiantzia bai, baiña txarra. Nok edan aziko deuto ura nere senarrari?

\* \* \*

Lasarte'ko kirol-zelaian, lasterketa zala-ta, Kalaudio ardo-zaleak ikusle bati :

—Zer dala-ta darabille orrenbeste anka-yoko?

—Kopa bategaitik.

—Aaa kaiku zarrak! Nik, pitxar bat baiño gutxiagogaitik ez dot zirkiñik egiten.

\* \* \*

Pelisa ta Elisa'k barriketa sakona erabillan euren artean. Bai diñotso arek oni :

—Bi illabete donaz Braulio'ri yaramonik egiten ez dautsodala. Txakurran salara bialdu naionan. Ta arrezkero egunero moxkortzen don.

—Orixe don benetan akontesimentua ospatzia!

\* \* \*

Opera deritxon ortaiko antzerkia izango zan gau artan. Kaxinto ta Erremigia senar-emazteak, idazki bat yaso eben egun artan, yai ortarako bi sarrera ederrekin.

Idazkian auxe iñotsen : “Bai al dakizue nok bialtzen dautzuezan sarrera oneik?”.

Senar-emazteak ilusioz beterik yoan ziran antzerkerra. Pesta eder ori amaitu ta etxeratu ziranean, etxe guttia atzekoz-aurrera aurkitu eben. Arritu ta naigabetu ziran, arasak zabalik eta ango nastea ikusita.

Mai baten ganean aurkitu eben papertxu batek auxe iñoan : “Orain bakizue sarrerak nok bialdu dautzuezan”.

\* \* \*

Badogu emen ezagun bat ; Mateo bere izena. Baiña geyenak Matao deitzen dautsoe, buruan aize nastuak erabiltzen dauzalako ; aldrebezkeri andiak esan oi dauzalako : Taxisak umea zapaldu dabela? ba arek, umeak taxisa zapaldu dabela, naiz jendea kalez beteta dagoala ta alakoak esaten dauz.

Igazi zan Erramu igandez astotxoaren prosesiñoa ikustera yoan zan ; eta an etorri zan, astotxoa Kesukristo'ren ganean ikusi ebala esanaz.

Lengo egun batez be, Quinqui'k gurdasubillak atrapau ebazala esan euskun. Izpar ori danok irakurri izan gendun itxulitara, ta berari barrez gengoan. Ta gutariko batek esan eban :

—Beno, goazen etxera, ordua dok-eta.

—Etxera zeuok yoango zarie —erantzun eban Matao'k kezka-aizeak yota—. Zuek nai dozuena bayakiatnik zer dan : Ni etxera bialdu ta zuok zurrutean yarraitu. Neri eztaustazue ziririk sartuko. Yoan zaiteze danok etxera ta ni emen gelditzen nok.

Ziur naz, zurrutean yarraitu bear gebala esan bage-  
nun, a etxera yoango zan.

Beraz ezagutu ezkerero, eztago aldrebezkeririk. Nor-  
bait pikutara bialdu nai dozula? Perretxikutara yoan dai-  
tela esan. Perretxikutara nai dozula bialdu? “Yoan adi  
pikutara” esan. Orrela yokatuaz, zeuk nai dozuna lortu-  
ko dozu.

Ala ta be, Matao'gaz kontuz ibili bearko zeunke.  
“Ines” ekaitzak baño aize biziagoak eta biurriagoak yo-  
ten bai dabe orren burua.

Orrez ganera badakigu zelako korapilloa asmau eu-  
tson gizeozko gazte bati, Amara'tik Atxuri'ra dabillan  
“pullman'ian.

Bultzi orretan bai etozan Donostitik Bilbora, aurrez-  
aurre gure Mateo ta gizeozko ori. Ixilik. Alako baten  
dirautso gazte arek :

—Yauna, ze ordu dogu?

Mateo'k kasurik bez. Bi aldiz, iru aldiz galdera bar-  
diña egin eutson, ta orduan gure ezagunak asarrekor  
auxe erantzun :

—Ez, ez ta ez. Eztautzut erantzungo. Nik zuri ordua  
esaten badautzut, zuk neri eskarrak egingo daustazuz,  
ta orren atxakiz geure arteko yardunari asikera emon.

Trenetik yatsiten garanean —yarraitu eban Ma-  
tao'k—, zuk ixkitxu bat artzera eroango nozu. Nik, neu-  
re etxea eskiñiko dautzut, eta nere etxean alaba txukun  
bat dot polita, liraña! Zuri, ziur naz, gustauko yatzu,  
ta... nere alabeari be bai zu. Beraz... ez, ez ta ez! Eztot  
nai, erlojorik eztaukan arlote bategaz, nere alabea ez-  
kondu daiten.

\* \* \*

Kalaudio'k lengo egun batez zabaldu eban izparrin-  
gia ta... axe izpar negargarria! ber-bere eriotzaren be-  
rria ekarran.

Yakiña, barruan sarrada andia nabaitu ebalarik,  
une baten mutu lotu zan, egia izango ete zanentz-edo.

Pixkat argitu zanean artu eban urrutizkiña ta ots-  
egin eutson, Errapel, bere adiskiderik onenari. Onek :

—Nor da?

—Aizak, Errapel! Kalaudio nok.

—Kalaudio? eztok izango egia! Baña inpernuan be  
urrutizkiña al dagok?

\* \* \*

Martin erremendariak burdin-gori bati eragoyon  
dinbi ta danba mallukaz. Burdin-goriak yausk egin eta  
begi ondoan yo ei eban. Orduan Martin'ek amorruez esan :  
Deabruak eruango al nau!

Beingoan agertu yakon txerrena, deabrua.

—Emen ni. Ator nerekin.

—Nik ezaut bear i ezetarako.

—Euk dei egin daustak.

—Dei egin badauat zer egiten dodan eztakidala egin  
izango nayoan.

—Et et et! neugaz etorri bear az.

—Ezetariko gogobagerik egin dodala!



—Nere eskuetatik urten nai badok, gauza bat egin bear izango dok oraintxe, amabi misterio andiak zeintzuk diran esan.

Ta asi zan deabrua galdezka ta San Martin erantzuten.

—Martintxo, esaik bat.

—Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gayozak.

—Esaik bi.

—Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gayozak.

—Esaik iru.

—Iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gayozak.

—Esaik lau.

—Lau ebanjelistak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi... eta abar.

—Esaik bost.

—Kristoren zauriak bost, lau ebanjelistak lau... e a.

—Esaik sei.

—Zeruko argiak sei, Kristoren zauriak bost... e a.

—Esaik zazpi.

—Zazpi Sakramentuak, zeruko argiak sei... e a.

—Esaik zortzi.

—Zortzirak dira zeruan, zazpi...

—Esaik beratzi.

—Bederatzi ordenak... eta abar.

—Esaik amar.

—Amar mandamentuak... e a.

—Esaik amaika.

—Amaika milla aingeruak... e a.

—Esaik amabi.

—Amabi apostoluak, amaika milla aingeruak, amar mandamentuak, bederatzi ordenak, zortzirak dira zeruan, zazpi Sakramentuak, zeruko argiak sei, Kristoren zauriak bost, lau ebanjelistak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gayozak; baña ez i!

—Martintxo: Esaik amairu.

—Eztok amairu.

—Badok amairu!

—Ollarrak yoten yok munduan, aingeru ederrak zeruan, neure arimea lagatzen dausat Andra Mariari al-tzoan.

Andra Mariaren izena entzun ebaneko kurrizkaz igez egin eban deabruak.

\* \* \*

Ezkondu eta makaldu nintzan,

Andreak onela dio:

Zure gaitzari sendatuteko

“dieta” tokatzen zaio.

Lepua metu, itxura txarra,

Zutituteko ez balio

Negu-gogorrik egiten badu

Mundu ontatik adio!

Bertso ori, Agustin debatarrak irakatsi eustan, ezkongai zanean; baña itxuraz, bertsoa aintzat artu bage, bera be ezkondu egin zan. Ta ondotxo ta poz-pozik bizi

dala dirauste. Enaz arritzen. Zumayatar aura, polita ez eze, berakatz-azala baño piñago neuk ezagutu bai neban. Amaika atzera-aurrera egin eban Agustín'ek Zumaya'ko burnibideko zubia-zear. Baña ez alperrik! Alkar ondo ezagaturik ezkondu ziran. Ori ondo, edozenentzat.

Orraitio izan dodaz adiskide batzuk, alkar ezagutu bage polito baten ezkondu diranak.

Orra bat, Legazpiarra berau; ementxe Bilbon eban bizibidea. Egun batez esan eustan :

—Manu, Venezuela'ra joan bear naizela sartu zait buruan.

—I gazte ta ausartsu az da, bearbada ik egin dagikek zerbait, diñoenez ango puxkarik onenak iruntziak diran arren.

Yoan zan. Amabost urte dira. An, beste giputz battegaz alkartu zan eta irabazpide polita aukeratu yakoen. Bizi ziran etxearen yaube egin eta aurrera bidea zabal ikusirik, egun batez :

—Ezkondu egin bear diagu —batek—.

—Ez emengo emakumekin —besteak—.

—Nik bazeukat emaztegayá Tolosa'n.

—Ba... joan eiteke, ta ezkondu eta etorri. Ik arrebarik ba al dek?

—Bai, iru.

—Bat ekarri zak onea; edozein! Nik ordainduko zioat atzera-aurrerea egazkiñez. Ta ni gustagarri banitzao, bereala ezkonduko gaituk. Ez naizela aren iduriko? Berriz Tolosa'ra bialiko diagu aukera guziekin, ta kito. Nere kontu atzera-aurrerako gastu guziak.

Orixe da euskal-emakumeagan konpianza izatea!

Tolosarra etorri zan. Ezkondu zan. Ta arrebetariko bat lagun arturik, egazkiñean, Caracas'era yoan ziran. An itxaroten egoan legazpitarrak neskátilla agurtu ebaneko galdetu :

—Zer diozu?

—BAI!

Orra itz gutxitan dana esanda. Bizpairu egun baño len, senar-emazte ziran. Or ikusten da, mutillak konpianza andia izan ba eban, neskátillak ez ebalá txikia-goa izan.

Iru urte dira, emen Bilboko yatetxe baten bazkaldu neban, orren bereziki alkartu ziran senar-emazte ta euren semetxo bategaz.

Ez ziran asarre!

\* \* \*

Ernani kaleko edaritegi baten, ointxe dozenerdi bat urte, Angora'ko katu ikusgarria euken. Ez naz gomute-tan ederragorik ikusi dodanik. Begi argi perdiekaz, mutur polita eban. Aren bizarrak erdi biribil, gaur tellatuetan ikusten diran telebista-orratzak baño askoz nabaigarrigoak ziran. Izatza izatz, zuma-zuma, ara ta ona erabiltzen eban, udabarriko aize bigunak gari-buruak erabiltzen dauzan lez. Urdin-zurixkaz sedazko ule mardula. Otsan-otsana zan, apala. Ez eutson arek iñori atzaparrak ezarriko. Orrez gane, bertako etxekandreak lazo gorritxu bat yarten eutson idunean da... pinpilinpauxa baño dotoreago egoten zan. Esan bearrik ez, edergallutzat eukoela, adornutzat.

Bein sartu ziran edaritegi ortan baserritar batzuk, eta euretariko batek katua begiztatu ondoren esan eban :

—Arranoa! Katu oona orixe sagu ta arratoientzako!

—Egon zaitte ixilik gizona! —erantzun eutson an egoan kaletar “yakintsu” batek destañez—. Oori, Angora’ko katua dozu, ta orrek eztau arrapetan sagurik ez arratoirik!

—Orregaitik esan yoat ba, katu ori oona dala sagu ta arratoientzat! —erantzun eutson baserritarrak—.

Parrez, negar egin geban an gengoanok.

\* \* \*

Pello-Koxe, Koxe-Pellipezana yoan zan kontseju billa. Onek :

—Zer yazoten yak ba?

—Ezkontzeko aukera bi yuadaz. Bata, alargun aberratsetariko dok, baña etxoat maite. Bestea barriz, oso txiroa, baña maite-maite yoat. Zeñegaz ezkondu?

—Iiño! Alakoetan biotzaren deiari erantzun bear izaten yakok mutil! Ezkondu adi txiroagaz!

—Eskerrekasko. Orixo egingo yoat. Deituko dauat garaiz ezteguna.

—Aizak; alde baño lenago esaiztak: ¿Nun bizi dok alargun ori?

\* \* \*

Landolako nagusiak morroyari :

—Koxe; denporatxoa daroazu Etxe onetan eta ondiño eztozu ikasi zeure lana bear dan lez egiten. Neure toki onetan, bape begirapenik bage sartzeta urteten zara. Beraz, ordua dozu ikasteko. Ba gara?

—Bai yauna.

—Tiira ba! Orain zoaz “estankura” ta ekarri egidazu ke-belarra, tabakua, baña bidean neska txatxalei, emakume ganorabakoei begira astirik galdu barik.

Urten zan morroya ateari drangada bat emonaz.

Itxuli zan, ta haimenik eskatuge sartu zan nagusiaren lan-gelan.

—(Mai-ganean utziaz) Or daukozuz ke-belarra ta hostekoaren “bueltak”.

Geyagoko bage bayoyan urtetera.

—Koxe! Zatoz ona! Alperrik da zuri oarrak egitea! Len be esan dautzut zerbait eta... dana alperrik! zeure leloan jarraitzen dozu. Astoko bat lez sartu ta urteten zara! Neuk irakatsiko dautzut zuri! Bai; okerrak zuzendu egin bear dira, ta ortarako sayo bat egingo dogu.

—Zelango sayoa?

—Ara: Une baterako truk egingo dogu gure malla. Uste egizu ni morroya nazala, ta zu, nagusia. Yesarri zaitte zu nere aulkian; ni aterako naz; ta sartuko nazanean, ke-belar billa bialduko nozu.

Yesarri zan morroya nagusiaren aulki ederrean. Atera zan nagusia.

Bereala atean kaxk-kaxk! entzun zan.

Pitintxu bat goxo-goxo irikirik galdetu nagusiak :

—Sartu al daiteke, yauna?

—Aurrera!

—(Makur bat egiñaz) Zer nai leuke nagusi yaunak?

—(Bost ogerlekokua emonaz) Zoaz “estankura” ta ekarri egidazu, arren, ke-belarra.

—Ondo da. Ezer geyago, yauna?

—Bai. “Ume ederrik ikusten badozu kalean, itz-er-ditxo bat ari esan gabe, ez pasatu parean”.

Ordagoa yaso eban baña ixilik yoan zan nagusia.

Andik lasterrera: Kaxk-kaxk! atean.

—Sartu al daiteke, yauna?

—Aurrera!

—(Mai-ganean utziaz) Or dozuz ke-belarra ta bostekoaren “bueltak”, yauna.

—Eskerrekasko. Ederto bete dozu agindua, ta ordañez, jaso egizuz zeuretzat “buelta” orreik.

\* \* \*

Ezagutzak egitean:

—Jeolimo, yaun au, Madrid'eko neure adiskide on bat dok.

—(Eskua luzatuaz, Jeolimo'k) Atsegin andia nabaitzen dot zu ezagutzean. ¡Koontxo! —diñotso bapatean—. Biboterik ezpalitz, neure emaztearen antz andia dozu!

—Baña nik ezpadaukot ba biboterik?

—Zuk ez, baña nere emazteak bai!

\* \* \*

Bazan emen Bilbon yaun bat Larrinaga abizenekoa. Baña bere deitura ori Larrínaga zala esaten eban, ta ez Larrinaga, leun, guk esaten dogun lez. Erdal gramatikari dagokionez “esdrújula” guztiak “asentua” eroan bear da-bielako-edo.

Zumarraga leun, eztala esan bear, Zumárraga baño. Gorrotxategi eztala, Gorrotxátegi baño. Luzárraga, Zumalakárregi ta abar.

Yaun orrek denda bat eukon Bidebarrieta kalean. Kapela dendea, “sombrerería”.

Ta auxe gertau zan egun batez:

Larrinaga yaun orren maniarik ez ekian gizon bat, sartu zan denda orretan kapela barri bat erosteko asmoz, ta nagusi ori antxe egoalarik, galdetzen dautso:

—¿Es ésta la sombreroería de Larrinaga?

—No, señor. ¡Esta es la sombreroería de Larrínaga!

—Entonces... ¡deme Vd. un sómbrero!

\* \* \*

Peru ta Maria, ogasunei yagokoenez polito baten bi-zi ziran; lan astunen bearrik bage.

Baña... beti izaten da bañaren bat-eta, “baña” kezkatxua sartu yakon buruan Peru'ri: Emazteak maite ez ete ebanekoa.

—Mari'k, emazte bateri yagokozan zeregin guztiak ondo betetzen yozak —iñotson bere buruari—. Baña zerbait oartzen yautzat, zer dan eztakidan zer bat. Ta zer ori zer dan eztakidan zer orrek zertzen nayok. Mari'k

agertzen daustan maitasuna, eztala barrukoa, biotzekoa.

Kezka orreik erabillazan kolkuan eta bere barruko bakea galtzen asi zan. Gañera, etxosteko baratzean lanean zanetan, norabait yoaten zala oartu ebn.

—Nor baña? —iñoan—. Biar urteten bada urten, yarraitu bear dautsot. Bai; senarrak yakin bearra dau, emaztea nundik nora dabillan.

Urrengo goizean, gosaldu ondoren esan eutsan emazteari :

—Mari, goiko txarara noa egur batzuk egiten.

—Ondo da. Gero arte, Peru.

Adi egoan Peru, Mari etxetik urteten ete zan.

Ez eban luzaro itxaron bearrik izan. Laister ikusi eban, bidea-zear berantz yoyala. Yarraitu eutson atzetik Arritu zan.

Euren etxetik txakurraren zaunka bira (bi kilometro) egoan basa-eleizan sartu zan Mari. Bera be yoan zan arinka, ta ateak eukan leyotillatik begitu, arretaz.

Antxe egoan Mari, San Jose'ren irudi ederraren aurrean belaunikaturik, zerbait iñotsola.

—Zer diñotsola baña? —iñoan Peru'k arriturik—. Ori be yakin bear dogu ba! Biar yakingo dot —esanaz, aize itxuli zan txarako egurretarrantz.

Urrengo goizean, Mari bidea-berantz asi zaneke, Peru'k, aurea artu eutson bide labor batetik, eta basaeleizako San Jose'ren ostean gorde, eskutau.

Kirrink! ermitako ateak. Mari, zuzen irudi donearen aurrera.

Bean-ganean belaun biak ezarri ta ixil-une baten ondoren asi zan Mari, arrenka :

—San Jose Gloriosua! Grazi bat eskatuten dautzut : Nere senarra gor eta mutu lotu daitela. Lortu egidazu, arren! grazi ori.

—Grazi ori lortu nai badozu, yan eta edan sendo emon senarrari! —erantzun eban Peru'k, bere gordelekutik, abotsari alako zerutar usaintxua ezarriaz.

Arin abiau zan Mari etxerantz, “San Jose”ren eskintza ausnartuaz.

Ariñago eldu zan Peru, etxosteko baratzerara, bere bide laborretik.

Amarrak aldean Mari'k :

—Peru! Etorri zaitte amarretakoa egitera; gaur goiztxo yaki zara ta gosetu izango ziñan onezkerero.

Axe amarretakoa! Goringo ikusgarritzko arrantz prijituak eta arta-txokorra baño lukainka lodiagoa, ardogorri-naparrarekin bustita! Bazkaria? jasaus mutillak! Afaria? jasaus gizonak! Eta ganeko egunetan... jasaus San José Gloriosua! Axe mauka Peru'k erabillana!

Illabeteren buruan senarrak emazteari :

—Mari, eztakit zer yazoten yatan; ez nabil ondo urrik emon be. Ikusmena ta entzumena galtzen ari naz egunetik egunera.

—Ba... lan gitxiago egin eta obeto alikatu, alimintau bear dozu —erantzun eutson emazteak—.

Egun artatik aurrera, yanari gozoagoak eta edari ugariagoak. Axe zan bizitza!

Beste illabeteren buruan :

—Mari, galdu naz. Eztot tautik be ikusten. Entzun ozt-ozta. Alan izatekotan, oba dot neure burua goiko lexa-zulora bota.

—Alakorik esatea be!

—Bai, lagundu eiztazu arren! Ixara.

Ezetz ta bayetz, baña Mari'k lagundu egin eutsan.

Lexa ertzera eldu ziranean, Peru'k, ezala ausartuten bere burua amilduten eta bultzada bat egin eyola esan eutsan emazteari.

Onek artu eban abiadea bultzadea indartsuagoa izan eiten. Une artan zirkin egin eban Peru'k, eta an yoan zan Mari lexa-zulora.

Eztakigu geyagoko barririk.

\* \* \*

Aspaldi ikusi etziran andra-gazte bik, alkar topo egin dabe.

Mosukatuaz :

—; Aspaldiko Margarita, beti lez txantxangorri polita! Ezkondu al intzanan?

—Bai neska, ta ondo!

—Ta... i?

—Baita.

—Zetariko senarra artu ebanan ba?

—Diru-etxe baten yaukan bere ogibidea. Kukurrukuka ibiltzeko aña etxona irabazten, baña atzera begiratzten be bai yakiñagu-ta... alkar maite-maite gaitun da... polito baten bizi gaitun. Zoriontsu! Eta eu, zetariko mutillakin ezkondu intzanan?

—Itxas-gizonarekin. Pillotua dona; itxas-ontzi andi baten dabillana. Dirurik asko bialtzen yaustana.

—Ta... noiz alkar ikusten zarie?

—Urtean bein amabost egun egiten yonaguz alkarrekin.

—Urtean a-ma-bost egun? Gaxoa! Supridu bear don ba!

—Bai zera! Amabost egun bereala pasatzen ditun!

\* \* \*

Mister Smith'ek euzkeraz ikasi nai izan eban. Ortarako, bai irakasle bakana aurkitu be: Peru Makur.

Eztakigu ikastaroa zelan amaitu eban, baña bai le-siñoetariko bat zelakoa izan zan.

—Ara —esan eutson egun artan Peru Makur'ek—; zuk euskeraz errez ikasiko dozu. Gaur asi gaitazan“ uan” ekin amaitzen diran itz batzuegaz, geyenak alan amaitzen dira-ta; laster konturatuko zara, diñotzudana egia dala. Adibidez: Zeruan, inpernuan, munduan, buruan, kolkuan, ardauan...

“Ardauan” entzun ebanekoxe, gure ingelesa botelliaz gogoratu zan kontixu, ta galdetu eutson bere irakasle bardinbakoari:

—Ta... botellak... nun euki “uan”?

—Kortxuan —erantzun eutson Peru Makur'ek.

\* \* \*

Emeterio'ri erakutsi ba'eutsen be, zuek ene gurasuok ez egiozue erakutsi zeuon umieri txixa egiten su-

kaldeko arrian, ur-otsaren laguntasunakin.

Ara zer yazo yakon Emeterio'ri mutil andi egin da gero.

Bayoian erromeritik etxerantz fifierifi txistu soñuan. Bide erdi inguruan dagon iturrira eldu zanean, onen darioaren otsa entzunik, txixalarria nabaitu eban, da asi zan orretan.

¡Axe zan txixa egitea! Txixa-zaparrada luzetxo eritxon, baña antxe egoan geldi, bere txixa-zaparradearen otsa noiz amaituko.

Ordubeteterdiren buruan, ollar baten kukurrukua entzunik konturatu zan, berak entzuten eban darioaren otsa etzala bere txixarena, iturriarena baño. Gizonan ganoa! Konturatu ezpalitza, antxe agortuko zan giza-joa!

\* \* \*

Mutikoak aitari:

—Ba al dakizu, irakasleak zer esan dauskun? Aprika aldeko Erri batzuetan, senar-gayak eztabela ezagutu izaten here emazte izango dana ezkon-ordurarte. Gauza bakana, ezta?

—Seme, Aprikan bakarrik ez dozak yazoten gauz orreik.

\* \* \*

Oraindik urte asko etzala bizi ei zan gizon xeblebre eta buru argiko bat, Mendexa'ko Etorri-Barri baserri-

kua. Orregaitik, “Etorri-Barri” deitzen ei eutsen; argiña ei zan bera.

Bein, ormagiñan iñarduan Algorta izeneko baserrian, eta an bateon bat gexo zalarik, sendagilleari deitu. Au etorri zanean eta “Etorri-Barri” ormagiñan ikusi ebanean, adarra joteagaitik onan esan ei eutsan:

—“Etorri-Barri” argiñaren paltak, morteruak tapauko jozak.

Argiñek bapatian erantzun ei eutsan:

—Sendagillearenak barriz, atxurrak eta palak.

\* \* \*

Beste bein, bera barik beste batzuek, Kanpu Santuko ormie egiten ei egozan, eta “Etorri-Barri” jun ei jakoen eta esan:

—Alper-alperrik egiten dozue orma ori.

—Zer ba? —erantzun ei eutsen—.

—Ba... or barruen dagozanak eztabe urtengo kanpora, eta kanpuen gagozanok ez dogu juen nai barrure, beraz alper-alperrikoa da orma ori.

\* \* \*

Edari zaletxua be ba eizan da, bein tabernatik betebete eginda balantzaka kamiñua betian ei joian etxera, eta erriko abadiagaz bat egin bidien. Abadiak onan ikusi ebanien Bariku Santu eguna izan da, esan ei eutson:

—“Etorri-Barri”, gaur dan egunien be balantzaka?

—Jauna, millagrúa al da ba Jaungoikue ilten daniel gizona balantzaka ibiltie? —erantzun ei eutson—.

\* \* \*

Txanton'ek etxoan belbillik erosi nai izan, arrizku andiko trezna zala-ta.

Etxoan pipatzen gaiz-bizia sortu ezekion.

Etxoan edari gogorrik artzen alkool-eriaren bildurrez.

Etxoan yanari andirik egiten urdalla zulatu ezekion.

Etxoan errondarik egiten, bikain da lerden irauteko.

Ezuan ezkondu bada-etzpada be.

—Da?

—Il zuan.

\* \* \*

Napoleon'en gerra ostean, bai ei zan emen zurrumurrua, Frantzezak Gorbea'tik pasatzean, urrez beteriko kaxa bat laga ebela estalduta, lexa edo kueba baten.

Auzotegi bateko iru gizoneri gogoratu ei yaken, lexa orretara yoan eta atxuritu egin bear ebela. Yoan ziran, da bai gogoz ekin be, yo ta ke, baña ez eben idoro ezebe.

Orretan, batek esan ei eban: "Bier goizean neu yoango naz Bilbora, adibiñadore bategana".

Yoan zan da azaldu eutsan pasadizu ori; da apur baten pentsetan egon ondoren erantzun arek: "Yo lenengo ezker aldera, ta gero artez; antxe aurkituko dozue kaxa ori".

Betorren gure gizona pozik da kontau deutsie beren lagunei. Urrengo egunean an doiaz Gorbea'ra, ta, etxuritu esandako moduan; baña alperrik. Orduan esan eban

beste euretariko batek: "Ba... bier, neuk yoan bear yoat adibiñadore orrengana, da ikusiko dogu zer diñoan".

Yoan zan; atea yo ta urteten deutso señora adibiñadore orrek, da pasaten dau gure gizona sukaldera, ta emen bakarrik laga. Ondoren, señora ori, gela batera yoan zan asuntoa estudiatzera. Bien bitartean, sukaldetan, lapikoa horbor lukainkea saltoka ebala. Baserritarrak, atara lukainkea lapikotik eta gerrikoan gorde, iñoala: "Igarriko ete daust ba?".

Badator adibiñadorea ta diñotso: "Zuek ekin atxurren da idoroko dozue".

—Da... zeinbat da zeure lana? —diñotso gure baserritarrak—.

—Irureun erreal.

—Ondo dago.

Ordaindu ta badoa gizona etxera, bere laguneri esanaz:

—Beno; nere egin bearrak amaitu dodaz. Atxurren yarraitu nai badozue, yarra zuok, baña nik ez. Lapikotik lukainkea ostu deusot eta eztau igarri. Bere sukaldetan egoan lukainkea nun gordea zan igarri eztabenean, zelan igarriko dau ba Gorbea'ko lexan urreak nun gordeta dagozan?

\* \* \*

Emazteak senarrari:

—Koxanton; bankutik dirua atara bearko dozu.

—Zertarako?

—Baa... seme-alabak diñoenez, geu bakarrik gara



telebiziorik eztogunak. Beraz erosi egin bearko dogu ainbat ariñen.

Koxanton ezta dirua yaurtiten zalea, gorde nayago izaten dau; eta belar-ostean atz-egiñaz diñotso emazteari:

—Ezdaiteke ba, Maiñaxi maitea, beingo baten dirurik atera. Guk dirua eruan ondoren, beste askok eta askok eruango eban; eta arein diruak gureen gañean egongo dira. Ta bakizu zer gertatzen dan; gure diruen gañean dagozanak gañetik kendu arte, guk ezin dirurik atera ta ezin telebiziorik erosi.

\* \* \*

Txilibrismo etzan ondo aurkitzen eta yoan zan On Kelemente sendagillearengana. Onek, arakatu ondoren diñotso:

—Zuk, “urdaillitis” daukozu.

—Ori... latiñetik etorriko da, ezta?

—Ez; ori Gabon-egunean yan zenuzan marraskilloetatik dator.

\* \* \*

Ugazabak, beti berandu ibili oi zan langilleari asarrez:

—Beti lelo bat esaten enaz ibilko ta... gaur diñotzut azkenez, garaiz etortzeko lanera. Entzun dozu? Azkenez diñotzut gero!

—Eskerrekasko, nagusi yauna! Asko poztuten naz barri orrekin; neu be ia aspertuta nengoan beti kanta ori entzuten!

\* \* \*

Lekeitio'n yazorikoa.

Erria osantsua ete zan yakin nairik, turista aleman batek galdetzen dautso arrantzaleari:

—Sarri ilten al da yentea erri ontan?

—Ez, yauna. Bein bakarrik.

\* \* \*

Osagillea, Pelotxu mutikoa arakatuten dabil, olagarroaren antzeko erpeak belarriko zuloetan sartuta. Tramankulotxoa bular-ganean yartzen dautso. Barruan kirri-korro andia nabaitu dautso antza ta... galdetu:

—Esan, Pelotxu. Yateko gogorik izaten dozu?

—Bai ta ez.

—Zelan bai ta ez?

—Yan baño len bai. Gero, ez.

\* \* \*

Larragoiti'ko apaiza eiztari amorratua zenun. Bere eleiza ta eleizkideak izan ezik, ez eban beste amesik, be-

re txakurak eta eskupetea baño. Mendizale ta ibiltari yatorra.

Pasko-aldiko letaniak bere gogoko ziran, urrin bai eukozen eleiz barrutiko ermitak eta mendiko ibillerak poz emoten eutsen.

Letani-egunetako goizetan naigabe txiki bat izaten eban; eskupetea etxean laga bearra. Ezbaizan egokia, apaiza izkilluarekin eleizkidien aurrean yartzea.

Egun oyetako batez, oso goiz aterata, bai yoyazen apaiz eta eleizkideak bide-ziorra-gora, San Kistobal'go bidean, apaiza, letanietan oi dan lez, santa guztieri arrenka eta yentea orapronobiska.

- ¡Santa Marta!
- Oorapronobis!
- ¡Santa Brigida!
- ¡Oorapronobis!
- ¡Oficiun sexto!
- ¡Te rogamos audinos!
- ¡Santa Maria Magdalena!
- ¡Oorapronobis!

Une onetan sasipetik erbia urten zan, eta bide-ziorrean, apaizaren aurrean, taka-taka, ibilten asi. Kiriak dar-dar yarri yakozen apaizari eta letañearen doñuan esan eban :

- ¡ ¡ Auxe dok auxe ! !
- ¡ Oorapronobis !
- ¡ ¡ Erbia aurrean ! !
- ¡ Oorapronobis !
- ¡ ¡ Eskupeta etxean ! !
- ¡ Oorapronobis !

Salto arin-polita egiñaz, laga eban erbiak bidea, begien aurretik eskutatuz.

Apaizak orduan, eskupeta eskuan izan bear ezak emon eutson amorruez esan eban :

— ¡ ¡ KA-KA ZA-RRRA ! !

— ¡ Oorapronobis ! —erantzun eben letani-zaleak, zer yazoten zan oartu barik.

\* \* \*

Erbestetar bat goseak ekarrita sartu zan Euskal-Erriko ardanegi baten arrautza batzuk gozaltzeko asmoz; baño aztu egin yakon, arrautzak euskeraz zelan eben izena, ta galdera batzuk bururatu yakozan :

— Etxekandre : Zelan deritxo or atadian dabillan egaztiari?

— Ollarra, yauna.

— Eta orren emazteari?

— Ollua, yauna.

— Eta ollar eta emaztearen umiei?

— Txitak, yauna.

— Baña... txitei txita izan baño lenago?

— Arrautzak, yauna.

— Ekarri egizuz bi.

\* \* \*

Au Soraluse'n yazo ei zan.

Jose Tute izenez ezagutzen ei eben, tute deritxon

yoko orretan nastuta beti ibiltzen zalako. Egun batez Jose Tute ez azaltzen bere nastera. Arrituta egozan lagunak, euren artean sakristaua. Ta orra barri txarra: Jose Tute azkenetan egoala ta apaiza yoan zedilla albait azkarren.

Apaiza, sakristaua lagun ebala, laster yoan zan gexoaren etxera.

Osagillea an egoan urduri. Onek bai diñotso apai-zari:

—Yauna, azkar ibili bedi. Kalentura itzela dauko ta une hatetik bestera burua galdu lei.

Arrasoya eban osagilleak. Autortu ebanekoxe, “¡Arrasto!” yo eban gexoak, eta ondoren “¡Lax Kuarenta!” kantau.

Kantu ori, burua galdu ebanaren ezaugarri zan eta apaizak esan eutson sakristauari:

—Ni banoa elizara, gure Yaunaren billa, ta zuk bitartean maitxu bat gertau egizu, natorrenerako.

Yoan zan apaiza. Sakristaua bere mayakin gelaratu zanean, ¡pott!, Jose Tute bertan ilda geratu.

An ezegoala zeregiñik-eta, yoan zan sakristaua apai-zari barri txarra eroatera, alperriko osterea egin ez egian.

Eliz-gelan sakristaua sartu zanean, galdetzen dautso apaizak arriturik:

—Da? zertan da gaxoa?

—Aara ba! Len bedorrek entzun daberen lez “¡Lax Kuarenta!”. Azkenak egin ditu ta... ¡Indomito!

\* \* \*

“Beti lanean be ez gozak egongo ta... aste beteko osteratxo bat egin bear yoat Bilbo aldera” —esan eban Peru Makur’ek—.

Diru pillatxoagaz etorri zan. Zortzi egun ezeze, ama-bost egiteko aña be bai ekarran.

“Aña” orrekin arroturik eta “baña”rekin gogoratu barik, auzo nastu ta ur-sakonetan murgildu zan, eta bakizu, aña ta baña tayuz alkartu ezik, ¡yakiña!, iru egun igazi baño len, lauzikorik bage lotu zan.

Eskuak poltsikoan sartuta bai yoyan Bidebarrieta kalea-zear, makur, bene-benetan Makur, erakustoki edo eskaparateak ikusiz. Yostun-etxe batekin topo egin eban; sastreriakin.

Yantzi-gai, eun ederra egoan zabal, bertan. Ta eun orrekiko yantzi-az, gizon dotorearen argazkia, erretratua. Barrenean idazkun au:

TRAJE 5.000 PTS.

—Nik, geyago ekarri nayoan, baña emen nayagok txakur-txiki barik —esan eban Peru Makur’ek—.

\* \* \*

Eibartar taldea yoan ei zan oiñaz Markiña’ra eguna egiten.

Kalea-zear yoyazala esan ei eban euretari-ko batek, arriturik:

—¡Ene! Markiñan, kalean be bedarra dagok!

—Ez Eibar'en beste asto balego! —erantzun ei eutson markiniarrak—.

\* \* \*

Senar-emazte areik piper-miñak lez asarre bizi ziran. Alkar ezkondu bai, egin ziran; baña alkar-artu, ori egundo bez.

Egoera zital orri kitu egiteko asmoz yoan ziran egun batez apaizarengana esanaz:

—Yauna: Esan dauskuenez, berorrek ezkondu geuzan lez, ezkontza ausi be egin ei daike. Ta guk orixe nai dogu; banandu ta bata-besteagandik uurrun bizi.

—Zer ba? Ez al dozue bakerik alkarren artean?

—Bakea? Gure etxeko bakea, inpernuko bakea dozu, yauna.

—Ba... ene maiteok, orain inpernuan lez bizitzekotan eta gerokoa irabaztekotan, oba izango dozue lenbailen ezkontza ori austea. Etorri zaitzeze biar, goizeko mezatara, ezkondu ziñaten goizean etorri ziñaten lez, ta eleizpean itxaron. Nik, egin bear dodana, egingo dot.

Biaramon goizean, meza-kanpayak yo ebanean, ezkon-zoribageok batu ziran eleizpean. Apaiza soñeko ederrak yantzirik, eleiz-mutilla lagun ebala azaldu zan. Belaunikatu-azi euzan apaizak bere aurrean ezkonduok, eta asi zan liburutik latin antzeko mor-mor batzuk esaten. Mor-mor baten ondoren ¡danga! kaxkarreko ederra eman eutson isopuakin senarrari. Gerotxuago ¡danga! emazteari beste bat. Mor-morrek eta kaxkarrekoak gerrogo ta ugariago ta gogorrago yoyazan; buruko koxko-

rrak geruago ta andiago. Senar-emazteak negar baten itandu eutsen apaizari:

—Yauna: gure ezkontza austeko orasiño orreik luzeak al dira?

—Nik... gauza bakar-bakar bat dakit bakarrik; biotatik bat il arte iraungo dabela zuen ezkontzak.

—Guazen ba etxera! ta ezkondu gintzazanean alkar-itx emon geban lez, bizi gaitezcan maitasunez, geure kabian —esan eutson senarrak emazteari—.

—Eederto pentsaua! —erantzun eban apaizak— Ori egiñaz bapo aldenduko dozue oraingo inpernua ta baita be gerokoa!

Eta apaiza, senar-emazte guztien bakiarren, meza esatera yoan zan.

\* \* \*

Ermua'n Bizkaiko urian, bazan gizon on bat, buru-argitasun gitxikoa. Gizaxo uts-utsa zan. "Zarrapel" gaitz-izenez ezagutzen eben. Garai artan, Ildefonso'ren bizartegian egiten ebazan egonaldi luzeak; arek, bizarra duan mostuten bai eutson.

—I, Ki-Killepontso; ni, ton-tontua nazela esaten uek, baña orixe Ke-Kesukristo be ezuan listo-listua. Igez Ke-Ketsemani'ko ortuan arrapau juen eta aurtan be bertan. Ni enitzuan juango!

\* \* \*

Bein, Oxintxu auzunera ezkondu zan arratiarra yoan ei zan Bergara'ra bizikletea erosi bear ebala-ta.

Txirringutz-zalearen etxean galdetu ei eban :

—Zenbat balio dau bizikleta onek?

—Onen beste.

—Orren beste? Diru orrekin oba izango dot beye erosi.

—Barre galantak egingo dautzuez beyaren ganean exerita ibilten asten bazara.

—Zuri andiagoak egingo dautzuez, bizikleta argal orreri errapetik elduta esnea yatziten asten bazara —erantzun ei eutson arratiarrak.

\* \* \*

Bein amabi gizon, gari zorro bana lepoan artuta, Arratiati Bilbora yoan zuan. Lemonako zubira eldueran, atsedean artu bear ebela ta, zorroak lurreratu juezan. Ainbeste zorro ikusita, bati auxe esatea bururatu jakuan :

—Gizonik baño zorrotik geyago daroaguzala egingo neukek.

Ezetz batzuk, baietz besteak.

—Ikusiko dozue : bat, bi, iru... amai, amaika gizon.

Bere burua ez eban gizon-artean sartu. Beste batzuk bere bat bi iru lauka asi zuazan ta hardin, euren buruak sartu ez ta zorrorik baño gizonik bat gitxiago. Guztien eretxiz amabigarren zorroa errekarra jaurti juen.

Atsedena naikoa artu ebenean, aurrera joateko asmoaz bakotxak bere zorroa leporatu juan. Jakiña, bat ainbarik gelditu zuan.

—Guk egin juagu egitekua! esan juan berak. Neure zorroa bota juagu.

—Jatsi adi, bada, bere billa.

—Zubi au goregi dagok jatsi al izateko.

—Neuk eukiko aut eskuti oratuta, ni beste batek, eta onatxe guztion artean laster artuko juagu.

Amabiak alkarri eskuak emonda dingilizka jarri ziranean, gorengoak nekaturik :

—Mutillak, esan eutsen, itxoin apurtxu baten eskuan txu egin arteiño.

Eskuak askatu ebazanean, blisti blausta amabiak arreker a jausi zitxuan ta amabiak ito.

\* \* \*

—Aitita ; gaur ez al dogu eskupekorik?

—Nere itauneri erantzuten badautsek, bai.

—Asi.

—Zenbat arrautza yango eukez baraurik?

—Doxena erdi bai.

—Ezta urrik emon be!

—Ezetz?

—Ez. Etxiñoat sei arrautza yango ez eukazanik, baña baraurik bat baño geyago ez. Lenengoa yan dokan unean, baraua ausi bai dok.

\* \* \*

Orain berrogetamar urte, bizargilleak ¡barberuak gizona! auzorik-auzo ibiltzen ziran euren lanean, larunbat guztietan.

Areik ez eben egun bateko bizarrrik iñausiten. Zortzi egunekoa gutxienez.

Zeure landegira naiz zeure etxera etortzen yatzuzan. “A domisilio” ¡bai yauna!

Eskumako sorbaldatik ezkerreko besapera dindiliz sakuto bat eroela ibiltzen ziran. Sakuto ortan eroezan labaña, ugela, yaboya, igurzkoa ta azpilla.

Azpilla burni-orizkoa izaten zan, ta bere erdi-erdian potxilia eroan urarentzat, eta ertzean, iztarriaren neurriko utsune biribilla, azpilla okozpean yarririk, urak irrizt egin ezegian paparreko bizarretara.

Gaur be ikusi daitezke ate buruetan, bizargintzea iragarteko yarri oi dabiezan ortariko treznak.

Azpil ori, esan dodan lez, okozpean yartzen eutzuen zapi-zuriaren orde. Lenengoz, ur utsez bustiten eben bizarra, ta gero, yaboi etxekoyarekin igurtzi.

Igurzki edo brotxearen ekiñaz naiko bitsik yaikiten ezpazan, arpegira txut egiten eutzuen, txistuz bitsa obeto arrotzeko, ta iñok ez eban izaten orren engararik.

Orrez ganera, azala txibur ebenei, trumoi-intxaurra (aletako andia) sartzen eutsoen aboan, masalla arrotuaz tximurretako bizarrak arrapatzeko. Ujenio zaldibartarrak alan egiten eban beintzat.

Egun batez klienteak, ezkerreko masalletik eskubikora intxaurra aldatzean, ¡gluk! egin eban, betik gorako buru-eraiña egiñaz, eta intxaurra iruntsi. Eta yaki-

ña, estutu zan gizona. Baña laster nasaitu eban Ujenio’k esanaz :

—Ezaitz arduratu orregaitik. Atzo beste bezero bati bardin yazo yakon intxaur orrekin, eta gaur goizean ekarri daust.

\* \* \*

Ezkon-berriak trenean doaz. Mentzulo edo tunel luze bat igaro ondoren, bai diñotso senarrak emazteari :

—Yakin izan baneu mentzulo au orren luzea izango zala, besarkada bat emongo neutzun.

—Baña... zeu ez al zara izan?

\* \* \*

Norbait argi ibili zan goiko ortan. Urrengo onetan be, ez ebillan illun gure Pelisa. Alan iñotson senargaiari :

—Ez egizu uste izan, Koxe-Mari, diruagaitik maite zaitudanik. Eun milloiren lekuan berrogeitamar bakarrik bazeunkoz be, bardin-bardin maiteko ziñukedaz.

¡Orixe da benetan maitatzea! Ta ez “contigo pan y cebolla” esanaz, bizi guztian kipula-usañaz ibiltzea. ¡Vi-va zu Pelisa! Ta kanta daigun On Nemex’en baimenaz, zure omenez :

Aixa dijoa Pelixa

Aixa, txoriaren gixa.

Batez ere sarritxo

edaten duanean anixa.

\* \* \*

On Kerolimo, landolako lanaren ostean yoan zan etxera. Yo eban tirriña. Iriki eutson atea neskameak.

—Oraindik etxean al zagoz, Kexuxa? —diñotso uga-zabak—. Urten zaite ainbat azkarren. Beko kale-ertzean itxaroten daukazu senargaia.

—Baña, yauna! Berorrek ezagutzen al dau nere Kaxinto? Arritzen nozu!

—Ezagutu... eztot ezagutzen, baña neure korbatea daroa ta...

\* \* \*

Giltzapean ondo lotuta egoan arranopolari bai diñotso giltzariak :

—Zu, zer dala-ta sartu zaitue espetxe ontan?

—Trena garaiz arrapatu ez nuelako.

—Beste gabe?

—Jakiña! Nik trena garaiz arrapatu izan banu, areik ez ninduten arrapatuko ni.

\* \* \*

Kaxkarin urian, gaur an bizi diranak sentzunez-koagoak izango diralakoa naz, orain eundazak urtekoak baño. ¡Areik eukezan gibelak! Pentsaizu zer sartu ya-

ken kaxkarrean : Osagillerik ez apaizik ez ebela bear eura-  
rak euren urian.

Eta yakiña, bi yokabide orreik kaltegarri izan gorputz eta arimako osasunarentzat.

Napar-eria sortu yaken eta osagillerik ez eztitzerik nai ez ebelarik, illabeteren buruan, gaztain-erretzeko tanboliña baño zulo geyagogaz azaldu ziran, arpegian, bertako biztanleak.

—Soñeko osasuna galtzea ezta erromeri ona, baña arimako galtzea ez daiket ontzat artu —esan eban eleiz-barruti artako Obispuak—.

Ots-egin eutson On Gumersindo errimeari, apaiztegitik urten barri zanari. Tantaya lakoxe erraldoya ta pagoa bezin sendoa zan. 50 neurriko oskiak yantzi eroazan.

—Bakizu zer gertatzen yakun Kaxkarin'en —esan eutson Gotzañak On Gumersindo'ri—. Bialdu izan dodazan apaiz guztiak garbitu dabez. Ta nik ez neuke iñor beartu nai arrizku ortara. Baña gure eleiz-barrutiko urixka bat artzañik bage ikusteak min damost. Norbaitek bere gogoz yoan nai baleu, askatasun osoa emongo neuskio, berak nai daben lez yokatzeko (Carta blanca deritxona-edo).

—Berorrek boluntario bat nai dau ezta?

—Oorixe!

—Emen daukozu ba! Noizko nai dau berorrek eleiz arekin yaubetu nedin?

—Datorren igandez meza izango balebe errukarri areik, zoriotsu nintzake.

—Izango dabe ba! Egon ziur!

Geyagoko bage, erestunean mun-egin eta urten zan

gure apaiza. Zuzen, armeri batera yo eban. Erosi eban izkillu zar andi bat (trabukua). Kargau eban erpiñeraño. Mandoaren ganean patxadaz exeri ta taka-taka abiau.

Larunbat arratsaldeko lauretan Kaxkarin'go plazan zan, trabukuaren txakurtxo gañekoan yarrita, ernai. Bakartade itzela egoan. Ezan iñortxo ikusten. Trabena bateko orman egoan txirringan lotu eban mandoa ta barrura sartu.

Bla-bla! yo ebazan bi txalo. Azaldu zan trabenaria. Onek bi pauso atzera egin ebazan apaiz erraldoya ikustean.

—Ezaitte ikaratu. Erriko apaiz barria naz. Nun da emengo yentea?

—Solo-baratzetako lanetan, yauna.

—Ondo da. Atara egizuz doxena bat arrautza prijitu, lauко ogia ta txopin ardoa.

Iruntzi ebazanean galdetu :

—Sakristaurik ba alda uri ontan?

—Bai, yauna.

—Bialdu egizu mutiko bat; etorri daitela onantz.

Etorri zan.

—Sakristaua al zara?

—Bai, yauna.

—Ni, eleizarekin yaubetzera etorri dan apaiza naz.

Lastorik bai alda zure zapayan?

—Bai, yauna.

—Ekarri egizu sendo, ta pillatu plazaren erdian. Ondoren su-emon eta kanpatorrera yoanik yo egizu su-kanpaya.

Ezordu artan, su-kanpaya entzun, eta etxetartetik ke-

ya urteten ikusirik, landa-langille guztiak itxumuztuan erriratu ziran, euren atxur da treznak bertan-bera lagata.

Plaza erdian lastoak erreta ta trabenako atean apaiz erraldoya trabuko andiarekin ikusirik, mutu lotu ziran danak, abo zabalka.

Orduan On Gumersindo'k :

—Ene elizkide maiteok! Dei bakan onen bidez alkartu zaituet emen, yakin dagizuen, biar zortziretan meza izango dozuela. An itxaroten zaituet. Orain yoan zaitzeze barriz zeuen lanetara. Eztot geyago esan bearrik.

—Motellak, bela-baltz ederra bialdu yauskuek oin-goan! Eztok errez izango arrano ori tiro barruan artzea! —esan eban batek lotsabage—.

—Ezetz? Nik etxoat uste, iragarri dauan mezea amaituko dabenik —beste batek—.

Beste guztien yardunak be alako larriak ziran. Giro negargarria nabaitzen zan urrengo goizerako.

Eldu ziran igande goizeko zortzi orduak.

Eleiza gonbururaño betea zan. Iñoiz ez ainbeste.

Erritarren biotzak taupa-taupa egozan apaiza noiz azalduko.

Urten zan apaiza eleiz-gelatik. Esku batean kaliza ta bestean trabukua ekarzan. Len baño taupada andia-goak errian.

Asi eban mezea.

—Etxok mezarik amaituko —esan eban batek ixil-pean—. Trabukua aldara ganean lagatzen dabeneko eraxiko yoe.

Leku onean ebiltzan! “Dominus bobiscum” bat esa-



teko be ez eban lagatzen izkillua. Aidean yaso bai besoak zabaltzen ebazanean. Epistola aldetik Ebangeliokora yoa-ten zanean be beragaz eroan.

Eta mezea aurrera johan Kaxkarintarren arritasu-  
nean.

“; Sursum Corda! !”. Ta barriz be izkillua aidean.

Mezea azkenetan egoan eta Kaxkarindarrak yokoa galduta ekusen.

“; Intem misa est! !”. Mezea amaitu da.

Une onetan, apaizak bizkarra emon ezanean kaliza artu ta eleiz-gelaratzeko, oyu izigarria entzun zan “; Oin-  
txe!” iñoala. Eleizkideak arnasa bage lotu ziran, aren azken-ordua eldu zalakoan; baña On Gumersindo’k en-  
tzun egin eban oyu ori, eta bereziki yarrita eukan espi-  
llu bitartez, aretaiko batek trabukoz apuntatzen ebal  
ikus; ta bapatean itxuliaz Sambombaso ikaragarria  
yaurti bere trabukoarekin. ; Ango apatx-otsa!

Aitiaren baten utsitu zan eleiza, bata-besteza zapal-  
duz urtenik.

Ezkerrak, On Gumersindo’k bere daunbada ikaraga-  
rria aidera yaurti ebanari, bestela antxe garbituko eba-  
zan erdiak.

Alan irabazi eban ba On Gumersindo’k bere lenen-  
go gudaketa.

Ezan gurenda makala, Kaxkarin’en, mezea asi ta  
amaitutea!

On Gumersindo’k goizean emon eutsen zaputsaren  
ondoren, batzartu ziran erriko espabiladurik biurrienak.  
Izkilluz ezala erreza apaiz a garbitzea ta beste “formula”  
bat asmau bear zala ainbat ariñen erabagi eben.

Iru edo lau astakillok agertu ebezan euren asmoak.  
Zelako asmoak! Bata baño bestea izigarriagoak ziran.  
Euretarik bat aukeratu bear zan da, “Mandazañarena”  
eritxona aukeratu eben. Auxe:

On Gumersindo baxen sendo, errime ta indartsu zan  
mandazaña. Ta au, il-egin zala esango eutsen apaizari,  
entierua egion.

Kaxkarin’en, oitura auxe zan ortarako; gorpua, ilda-  
koaren etxetik elizpera eruaten eben erriak lagunduz.  
Ondoren eleizaratu zerraldoa, ta an, gorpua ta apaiza  
bakarrrik laga, onek bedeinkasiñoa yaurti egion.

—Beraz... bakik zer egin bear dokan —esan eutson  
mandazañari, barrabazkeri orren asmatzalleak—. Apai-  
zak zerraldoaren tapea altxatzean, pastekuna botatzeko, i  
geldi! Ta bendesiño ostean, tapea itxiteko makurtzen  
danean orixe dok ordua! elduko dautsok zamatik eta ko-  
kota ta iztarriko intxaurra alkartu, mingaña kana-erdi  
bat atazo arte.

Ondoren azkar ibili! sartu egik apaiza zerraldoan;  
itxi egiok ganeko tapea ta eleiz-osteko atetik urtenaz, i  
etxera yoan. Beste guztia guk egingo yuagu. Guk eroan-  
go yuagu apaiza ildegira. Sartuko yuagu zuloan eta urren-  
go egunean ire “erresuresiñoa” ospatuko yuagu erriko  
trabanan.

Asmoa biribiltzeko, bizpairu egun ixilpean nasai  
egotea erabagi eben, apaizak ezetariko kezkarik yaso  
ezeian.

Urrengo asteazkenean, gabeko bederatziretan, man-  
dazañaren loba neskatillea bialdu eben apaizarengana.  
Onek negarti:

—Oi Yainko maitea! Auxe ezbearra!

—Zer yazoten da? —apaizak legor—.

—Oi ene! Gure osaba mandazaña il egin da.

—Ba... il bada, biar bederatziretan egingo dautsagu entierua. Zoaz etxera. Neure atsekabea sendi osoari.

Urrengo goizean, ordua baño len, “ildakoaren” etxe-ingurua yentez beterik egon; zabaldua bai egon azpikeria. Esku-igurtzika dan-danak.

Bederatzi orduen daunbada, asi zan dorrean il-kanpaia, dilin-dolon ituna yoten. Laster zan apaiza “difunturen” atadian. Antxe egoan mandazaña, lau kandela andiren erdian.

Oi diran otoitzak esan eta eriñotz-orriarekin onetsi ondoren, abiau eleizarantz. On Gumersindo kantuz: Miserere Mei Misericordian Tuam!

Laguntzallek, barrutik barrezka baña azalez oso goibel yoyazan, apaizak ezer oartu ezegian.

Eldu ziran elizpera. Zerraldoa laga eben an egoan mai-ganean.

Otoitzak esan ondoren apaizak: Requiescat in pace! Amen! Et ne nos inducas in tentationem! Pater noster!

Axe ixiltasun itzela! Ordu baltza ganean zan. Araño eruan eben anderuak, sartu eben zerraldoa eleiz barrura. Oitura zan lez lur-ganean laga ta urten. Bakarrik egozan ba, aurrez-aurre, apaiza ta mandazaña.

On Gumersindo'k altxau eban zerraldoaren estalkia. Mandazañak arpegia iriñez zurituta eroan eta besoak bular-ganean gurutzatuta. Nork esan bene-benetan ilda ezegonik!

Apaizak liburua irikiz, yagokon otoa esan ondoren

sartu eban isopua ur-bedeinkatu-ontzian, ta aidean gurutza egiñaz, bedeinkasiñoia yaurti.

Une onetan sortu zan uste-bagea.

Mandazañak, bedeinkasiñoaren ur-zaparradea arpegian nabaitu ebanean, arritasunezko zirkiña egin eban. Bai azkar oartu be On Gumersindo'k!

Apaiza, kontuz aldatu zan lekuz “gorpu-buruaren” atzekaldera.

Eskuan eban burdiñazko isopo aztuna palankari baten gisan yasoaz daunba! yo eban garunetan eta guzurrezko illa, egizko biurtu zan.

Ondoren itxi eban zerraldoaren tapea. Urten elizpera, ta an urduri itxaroten egoan erriarengana zuzendurik esan:

—Ene elizkide maiteok! Oar bat egin bear dautzuet. Urrengoan, ildako bat dakastasuenean, ez daistazuela erdi illik ekarri; ardura geyegi baita neretzat, iñori azkenak eragin bear izatea, mandazañarekin egitera beartu nozuen lez. Beraz... illeta oneri azkena emoteko, artu egizue zerraldoa ta... goazen ildegira.

Kaxkarindarrak arri ta orma, mutu lotu ziran; isopuaren zartadea euren kokotean nabaitu izan balebe baño arrituago.

Da “arri ta ormatartean”, berrogetamar urte iraun ei ebazan uri artan.

\* \* \*

Alabeak ezkontzeko asmoa azaldu eutson bere aitari. Onek ondo eretxi; baña orraitio, ezagutu nai ebala se-

nar-gaya. Egun batez eroan eban ezagutzak egitera. Aitañarreba izango zanak, galdetu :

—Zu, zeren billa zatoz ; nere alabaren billa ala nere dirutxu ederren billa?

—Yauna ; neri diruak ezta most bape ardurarik. Nik zure alabea dot maite.

—Orduan... yoan eiteke emetik ; tontorik etxoagu bear etxean.

\* \* \*

Bi eskoba-saltzalle ebiltzan kalean. Batak, bost errealean saltzen ebazan ; besteak iruan.

Arek bai diñotso oni :

—Zu, zatoz ona, konpiantzara itz-egin bear dogu-ta. Ezin dot asmau zelan saldu daikezuzan eskoba orreik iru errealean. Nik, gayak ostu egiten dodaz, eta egitea besterik etxat kostatzen. Zelan saldu daikezuz zuk, iru errealean?

—Nik, egindakoak ostuten dodazalako!

\* \* \*

Urrengo au, yazorikoa da. Ogetamar bat urte dira Burzeña'n, Bilbotik gertu dagoan Barakaldo'ko auzune ortan yazo zanetik.

Senarra moskortia zan, eta yakiña, emaztea, aren ala yarduten zan bere adiskidien artean.

—Adaki bategaz yo zan buruan! —esaten eutsen andreari, lagunak.

Baña urtea yoan eta urtea etorri, eruapenez yantzi-rik, emaztea etzan ausartuten alakorik egiten.

Egun batez, emaztea egurrak txikitzen egoala, orra senarra, bere lagun maitearekin : moskorrarekin.

Sutu zan andrea, odolak irakin eutson antza, ta eskuetan eban aizkorarekin danga! buruan yo eban.

Gizona odol-bitsetan eruan eban Basurto'ko osate-xtera. Osakuntso egin eta burua zapiz lotu ondoren, "averia" zelan izan zan yakin bear ba, ta galdetu eutsen :

—Diñoenez, zeure emaztea izan da aizkorarekin buruan yo zaituna.

—Ez, —erantzun eban zaurituak—. Iñork ez nau yo aizkorarekin buruan ; neuk yo dot aizkorea buruagaz, moskorrik, etxeko eskillaran ostopo egiñik.

Alperrik izan ziran galdera guztiak. Arek ez eban amazterik salatu. Eta sendatu zanean etxeratu ta ez eban geyago moskor bat bera be artu.

Gerora, emaztearen lagunak, izekaz, esaten eutsen "aizkolariari" :

—Gizona moskortia izango zonan baña... i eu be ez az on-ona. Guk, adakiagaz yoteko esaten eunagun, baña... aizkoreakin yoko ebanan ba senarra?

—Ondorenaren barri yakin izan ba'neu, lenago yoko nayonan —erantzuten eutsen emazteak—.

Gaur be bizi dira ondiño, aurtan larogei urte artzeko asmotan.

Nork daki, zoriaña nundik etorri daiteken!

\* \* \*

Ikasleak aitari dirua eskatuz idazten eutson. Onek ez baña yaramonik egiten, ikasketak baño lizunkeriak ar-dura geyago emotsoela areri, bai ekialako.

Egun batez semeak aitari idazki au :

—Aita: Astelenez idazten dautzut, astartez yakin dagizun, asteazkenez bape diru bage izango nazala; eta ostegunez bialtzen ezpadauztazu, ostiralez jaso al izateko, larunbatez sartu trenean eta igandez or izango nozu.

Aitak semeari :

Seme: Ire asteleneko idazkia astartez yaso nayuan, eta asteazkenez erantzuten dauat, ostegunez yakin dagan, ostiralez eztokala yasoko dirurik; eta larunbatez trenean sartzen ba'az onantz, igandez nik, muturrak auziko dauadaz.

\* \* \*

—Aitita: Bota igarkizun bat! Igarri bayetz!

—Ezetz! Zer yokatuko yuagu?

—Kaxkarreko bat.

—Ta... irabaziko baeunke, aittari kaxkarrekoa emoten ausartuko intzake?

—Iiño... zitalkeriz ez, baña yolasean, alako bigunbiguntxo bat, karisi antzo...

—Vale! Atsegiña dok ire erantzuna. Asi gaitezen beraz. Baña au igarteko adi egon bear az.

—Adi naz!

—“Yan eta edan bapo egin dogu”. Iru izkigaz, letragaz, idazten dok ori.

—Irugaz? Bat, bi, iru, lau... ogeta bi izki dauz!

—A mosolo zarra! Eztok ulertu. Ara: “Iru izkigaz idazten dok ori”. Ez al dok egia?

—“Ori” bai!

—“Ori” esan dauat ba!

\* \* \*

Bermeo'n, here izenez baño gaitz-izenez ezagunago dozu edonor.

Cirilo Zabala'ren idazti bikañean be irakurri daitezke millaka gaitz-izen. Politak, barregarriak, egokiak eta destañezkoak be bai. Guztitarikoak.

Eta ez etxeakoari bakarrik, erbestetik bertara bizitzera dozaneri be laster ezarri oi deutse gaitz-izena. Iku-siko dozubenez, erreztasun andia dabe ortarako.

On Jose yaun agurgarria, diru-etxe baten ogipeko autatu ebelarik, eldu zan kai ospetsu ortara.

Laster egin ebazan adiskideak eta eurekaz edaritegi baten barriketa gozuan egoan, hermiotarrak begiko yakozala ta euren artean oso giro ona aurkitzen ebala esanaz.

Eta adiskideok, oar egin eutsen, kontuz ibiltzeko bere esakeregaz eta yoka-legeaz, gaitz-izenen bat ezarri eze-yoen.

—Bien —erantzun eban On Jose'k erderaz—. Agra-

dezo la advertencia, pero no se preocupen. Ya tomaré mis precauciones.

Ortxe galdu eban On Jose'k bere izen ona. Une ortan bertan, "Prekausiones" gaitz-izena ezarri eutsen, onu emole areik. Eta arrezkero ez eban izan beste izenik.

Beraz Bermeo'ra zoazanean yoan zaitte nasai, prekausiñorik artu bage.

\* \* \*

Sendagillearen etxean negarrezko ta barrezko yozokunak izaten dira. Orra bat :

Errupioño egoskor zamarra, kontzultara yoan zan zerbaitek urdurituta. Sendagilleak arakatuta galde :

—Buruko miñik izaten dozu?

—Batzuetan bai, bestetan ez.

—Istarriko miñik?

—Bai ta ez.

—Silbotean?

—Batzuetan bai, bestetan ez.

—Bapo! Eutsi errezetea ta... nai badozu yoan zindekez osakaiak saltzen dabezan Etxera, orrek diñonaren billa. An bearba gertauko dautzue ta bearba ez. Emoten dautzuela? Nai bozu artu egizu, nai ezpozu ez. Baleiteke osakai orrek on egitea ta ez egitea. Nai bozu, urrengoan be etorri. Nai ezpozu, ez etorri.

Ta orain... laga daiguzan "naibadozuzak" eta "naiez badozuzak". Eldu bai gara ezpairik bako arlorra. Nai badozu naiz ezpadozu, emen ordaindu egin bear dozu. Kontzultea 50 ogerleko da.

\* \* \*

Etxe-yaun batek iru seme eukazan; irurak bardin maite zituan eta ezekian nor izentau bere oiñ-ordeko.

Eriotz-ordua eldu yakonean, deitu euzan oe-aurrera ta dirautse: "Seme maiteok, yakin-azi nai dautsuedan zerbait daroat kolkoan gordeta: zuen artean nagiena nor dan, axe izango dok nire oiñ-ordeko".

Ta erantzun eutsan zarrenak: "Alan Nagusitzea neure izango da; ni baño nagiagorik ezta munduan. Oean lotan nazanean, ittoin tantak begietan yoten banabe be, ezot yaramonik egiten lo-zorroan yarraitutearren".

Erantzun eutsan bigarrenak: "Aita, Nagusitzea neurea da, nagiagoa naz ni nagiagoa! Sutonduan berotuten nagoanean, lenago izten dodaz beatzak erretan, bernak atzeratu baño".

Irugarrenak: "Aita, Nagusitzea neurea bear dau izan; ni naz nagia ni! Urkatu bear banindue eta sokea saman baneunka ta norbaitek sokea ebagiteko aiztoa eskura emongo baleust be, lenago itxiko neunke neure burua urkatuten, eskua sokaraño yaso baño".

Aitak, au entzun ebanean, esan eutsan: "¡Kontxo! i langorik etxagok mutil; eu izango az Nagusi".

\* \* \*

Goian ikusi dozuenez, nagiarentzat saria izan zan. Lapurrentzat ez al dago saririk? Baita. Ta au ezta ipuñia, ointsu yazorikoa baiño.

Uri aundi bateko egazkin-zelaian, egazkiña artzera juan joian yaun bati, karteria ostu eutsien. Au konturatu zan fechoriagaz, eta yarraitu eutson lapurrari. Luzaro yarraitu eutsan arren, onek anka-egin.

Itxuli zanean, egazkiña aidean yoian. Lurrean lotu zan gizona naigabeturik.

Oker baten lekuan bi izan ebazala uste ebanean, orra, guztia aldatu bapatean: Egazkiña lurrera erori zan, eta bertan yoiazan guztiak kixkaldurik lotu.

Igarri eban gizonak, lapur axe izan zala eriotza ziur batetik salbau ebana, eta izparringian iragarki auxe yarri: "Lengo egunean egazkin-zelaian karteria ostu zeustan yaun ori, etorri zadi nere etxera, neure eskerra azaldu ta eskupeko on bat emon dagitsudan. Bizia zor bai dautsut".

Orra, zelangoak yazoten diran mundu onetan: Nagia nagusi ta Lapurra salbatzalle.

\* \* \*

Eiztarietariko bat bai etorran mendia-bera maxkal-zamar. Txanton'egaz topo egi eban eta bai diñotso onek:

—Zer? Utsik ala?

—Bai; gaur eztot zori andirik izan. Ale bat be ez-tot ikusi.

—Ta... lotsagarri orretan yoango al zara etxera?

—Eztot beste erremediorik.

—Neuk emongo dautsut! Orraitio zertxo bait ordain-

du bearko daustazu. Ara: Ikusten dozuz landan dagozan ollaskotxu orreik? Emon eiztazuz ogei ogerleko ta yaurti egiozue daunbada bat. Garbitzen dozuzanak, zeuretzat.

Eiztariak pozik emon eutsozan ogei ogerlekoak; yaurti eban daunbadea ta... lau garbitu ebazan. Yaso eban bere eiza ta etxerantz abiau zanean esan eutson Txantonek:

—Or beko basetxe aurrean pasatzean, kontuz! ollaskuok ikusi eztaizuezan, beste daunbadaren bat zeuk artu nai ezpadozu beintzat.

\* \* \*

Emen badot, lagun begiko bat, egunero beragaz osteratxoa egin oi dodana.

Fisika, Kimika, Burdin-galdaketa, Tximizt-arloak eta Metafisikako yakintza batzuk burutapenetan murgilduta erabiltzen dabe. Zeuk, ustez, sentzunezko zerbait azaltzen badautsazu, berak laster yarriko dautsu koxkaren bat.

Lengo egun batez, bata-bestearen barririk yakin gabe, alkar topo egin gendun Santurtze'n.

Koontxo Santi! Auxe dok kasualidadea! —esanaz agurtu neban.

Laster yarri eustan koxkea, esanaz:

—Kasualidaderik etxagok. I, illeta batera etorri aiz; ni, batayo batera. Beraz... "il dana il ezpalitz" eta sortu dana sortu ezpalitz, gu biok ez giñoazan emen aurkituko. Orrekin esan nai dauat, eztagola kasualidaderik; gauza orreik egunero, gertatzen diran kontuak dozak.

Ez eta be —yarrantu eustan—, etxaukek izaerarik, ez illunak, ez ixiltasunak, ez otzak. Orreik, ik lez yardun yardutze aldera egiten dabezanen gauzak dozak. Illuna, argirik eza dok. Ixiltasuna, zaratarik eza. Otza, berorik eza. Egik kontu; basamortu bateko etxetxu baka-rean argitxuategaz azaltzen aizela; bapatean irikitzen dok leyoa; milla kilometrotan datzan illunpeak iruntzi bear leuek argitxu aura leyotik barrura sartuta, baiña alderantzira gertatzen dok: Argitxoak leyotik kanpora urtenik, illuntasuna urratzen yok. Zergaitik? Illuntasuna eztaukalako izaterik eta argiak bai.

Zaratea, zarata utsa, gauza txarra dok. Zaratarik eza, ederra. Baña ez esan neri ixiltasun andia dagonik, ixiltasunik etxagok-eta, etxaukak izaterik. Ik ixiltasunik ez egike sortu; zaratea bai, baita neuk be.

Ondoren mostrador-gaño yoten asi zan edontzi lodi batekin, dranga-dranga.

—Santi! egon adi ixilik! —esatera nindoian, baña ainbeste esplikasiño entzun ondoren...— Santi! ez eik atara zaratarik! esan neutson.

—Ooori dok —erantzun eustan—. Zerbait ikasi dok, ixilik ez leitekek iñor egon da.

—I ez beintzat; metafisikarekin be zaratea ataratzen dok-eta.

“Guazian etxera” esanaz, sartu gintzazan trenean eta abiau Bilborantz,

Bidean esan neutson:

—Len... kasualidaderik be eztagola esan dok.

—Egia dok. Esan dauat, egunero gertatzen diran gauzak dirala; berezkoak.

—Ba nik, eun urtetik egun urtera gertautako gauza bardiñak irakurri nayoazan aldi luzea ezala aldizkari baten.

—Zer irakurri uan ba?

—Ipar Amerikako lendakari izan ziran Lincoln eta Kennedy'ren eriotzak, ustebako edo kasualidade andiak bustartuta daukozala. Ta orain egon adi ixilik, beno, parkatu. Ezeik zaratarik atara ta entzun:

Lincoln, 1.860'garren urtean autatu yoen lendakari; eta Kennedy 1.960'garren urtean, eun urte egin egiñak; biak garbitu yoezan ostiralez; biak euren emazteen begien aurrean.

Euren ordezekoak, biak izan zuazan alderdi batekoak eta izen bardiña eroien biak: Johnson. Lincoln'en ordezekoa, Andrew Johnson, 1.808'an jayo zuan eta gaur lendakari dan Lyndon Johnson 1.908'an. Eun urte justu.

Lincoln'en erailtzallea Jhon Wilkes Booth, 1.839'an jayo zuan eta Kennedy'rena Lee Harvey Oswald, 1.939'an. Orra barrero be beste gizaldi baten bitartea.

Erailtzalle biak garbitu yoezan epaitu baño lenago. Lenengoa, bere gaiztakeria antzoki baten egin ondoren, almazen batera yoan zuan eskutatzeraz; eta bigarrenak almazen batetik egin yoan gaiztakeria ta antzoki batera yoan gordetzeraz. Biak izan yoezan lagun gaiztoak eta lagun gaiztoen eskuetan erori zuazan.

Kasualidade geyago nai baldin badok, esan daiadan, Lincoln'en idazkariaren izena Kennedy zala ta onek antzertkira ez yoateko onua emon eutsala areri il eben egunean.

Kennedy'ren idazkariari Lincoln eritxoan eta onek

be Dallas'era ez yoateko onua emon yautsan. Landakarion emazteek, semé bana galdu yoen lendaritzaek iraun eban bitartean.

—Ta zer geyago? —diñost Santi'k.

—Otzak ezpadauka izaterik, negu ederra pasauko dogula.

\* \* \*

Erromualdo'k izen luzea eban baiña soñez laburra zan. Metro bat luze orrenbaten izango zan.

Aitak berak be, “Kakanarru” deitu oi eutsan izekaz, txatxu bat zalako.

Orraitio gizon txikiak erabagi andia artu eutsun egun batez: Ezkontzea.

Arazo andi orreik aitari esan bearrekoak izaten dira-ta, yoan zan beragana barri orrekin.

—Aita, ezkontzea erabagi dot.

—Ezkondu? I ezkondu? Kasta ederrak atarako dokak ik!

—Zuk añakoa atarako al dogu beintzat.

\* \* \*

—Koxe: Amaitu dozak gure ibillerak zati baterako. Eldu yakuk soldautza.

—Ez adi eztutu mutil! Soldautzari irutxur egiteko bidea asmauta yaukat nik aspaldi —erantzun eutsan Klaudio'k—.

—Ago orretan! Buruzagi ta osagille, biak alde batera diran orrei etxagok irutxur egiterik.

—Bai gizona! Ara Koxe: Errekonosimentua dogu-nean; ikusmenetik labur gabiltzala esango yuagu. Ta zerbait aurrean yartzen badauskue, ezer eztogula ikusten esan. Alan, gu biok, emen geldituko gozak, eta yoaten diranen neska-lagunekin, bapo ibiliko gaituk.

Eldu zan arakatuteko ordua. An egozan Koxe ta Klaudio euren txandeari begira sendagilleen atetan.

Koxe'ri ots-egin eutsoen. “A” izki andi bat yarri eutsen aurrean, esanaz:

—Ze letra da au?

—Nik eztot ikusten ezebe.

Antzerkiko oyala bailitzan, iriki zan “A” ori eroan oyala, ta, emakume liraña azaldu yantzi arin zamarrakin.

—Eederra emakumea! —esan eban Koxe'k—.

—¡Util! —buruzagi osagilleak—.

Lotsatuta urten zan Koxe, artatxori bat galbaipen lez arrapau ebelako.

Kontau eutson Koxe'k, Klaudio'ri, yazo yakona, ta arretaz ibiltzeko esan, bera lez yauzi ezeiten.

Sartu zan Klaudio gelan. Oni ez eutsen yarri aurrean, ez “A”rik, ez emakumerik, baña galdetu bai:

—Ze letra da au?

—Nik eztot or ezer ikusten.

Iriki zan oyala.

—Orain zer ikusten dozu?

—Nik eztot ezertxo be ikusten.

—Eederra begia, mutil!! —esan eutson buruzagi-



-osagilleak—. Ezer ez dan tokian, ez daitekek ezer ikusi ; ez "A"rik, ez "M"rik. ¡Util!

Arrezkero, Koxe ta Klaudio, biak dira Kalau-dio.

Ta ori baño txarrago dana : Orain, urian, beste mutil batzuk dabiltz euren neska-lagunekaz.

\* \* \*

Koxanton bai yoian azokara beya saltzeko asmoz, bitzabala zear.

Igaroten ziran otomobil guztieri geratzeko agintzen eutsen, baño iñok ez eutson yaramonik egiten. Etzan arritzeko, gizona beyagaz ikusirik.

Baña berak, berean yarraitu eban eta alako baten, bat lotu zan galdetuz :

—Zer nai zenduan, gizon?

—Eruan nagizula uriko azokaraño, ia bei au saltzen badot.

—Kontxo... zu eroan zindekedaz baño... beya ez.

—Beya etorriko da atzetik. Ez izan orren ardurarik.

Sartu zan Koxanton belbillean. Au asi zan astiro ibiliaz. Beyak taka-taka yarraitzen eutsen. 20 killometron abiada emon eutson txoperrak belbillari, ta beyak errez yarraitzen eutsoela ikusi eban izpilluaren bitartez.

Ori ikusirik, 40'ko abiadan yarri eban belbilla, ta beyak xegi ta xegi. Arriturik, txoperrak sartu eban 100 killometroko abiadan, eta... izpillu bitartez ikusi eban, beyak mingaña atarata yarraitzen eutsela.

Arrozko, esan eban txoperrak :

—Iño! ointxe larri dator zure abere ori. Mingaña atara dau.

—Ze aldetara —galdetu eutson Koxanton'ek— Ezker aldera ala eskumara?

—Ezker aldera.

—Orduan... bidea libre lagatzeko diñotzu, beretzako abiada au txikerra da-ta.

\* \* \*

Ministroak erki artara bere ikustaldia egin eban. An-go buruzagiekin konpianzazko yardun mamitsua erabillan. Ministroak erriaren eretxi guztiak yakin nai eban; esamesak eta zer-esanak, danak! onak eta txarrak.

Ontan galde Ministroak :

—... zer diño erriak Plan de Desarrollotzaz?

—Ba... baikorrak eta ezkorrak (optimistas y pesimistas), guztitarikoak dira.

—Zer diño ba baikorrak?

—Satsa yan bearko dogula ugari.

—Ta ezkorrak?

—Orreik eztabe uste danontzako lain izango danik.

\* \* \*

Erromualdo, patxadaz ondo egoan baño auldua nabaitzen eban bere burua. Etzan ondo aurkitzen.

Yoan zan On Erreztutito sendagillearengana, ta onek, arakatu ondoren esan eutson :

—Eztautzut errezetarik egingo. Buruz egingo dozu bear dozuna. Auxe : Edan sendo ; erre bildur bage ; yan kezkarik bage ta errondan egin zeuk nai dozun arte. Oingo-z orixe agintzen deutzut. Ta... etorri barriz illabeteren buruan. Orduan ikusiko dogu zerbait geyago egin al badaikezu. (Au, irriparretxu bategaz esan eutson).

Ori da sendagillea, ori ! Eta ez gauza guzti orreik aldrebez esaten dabiezanak, gexoa ikaratzeko !

Bien, On Erreztutito ! Orixe da gauzak Erreztutia !

\* \* \*

Zoro-etxe artan eguerdi guztietan igoten zan tellatura gexoetariko bat. Ta andik eup egiñaz esaten eban : “Amabiak dira oraintxe ta yaurti daigun buskentza lapikora !” Ondoren bere burua yurtiten eban goitik-bera.

Ango gexo-zañek bai ekien baña aren tirritxua, ta bean, sare andi bat yarten eutsen, bertan bigunki atrapetako.

Egun batez, gexo-zañek aspertu ziran kontixu ta esan eben euren artean : “Egunero ez gozak emen ibiliko orren arduraz ta gaur ez yautsagu sarerik yarri bear, ia buskentz ori errementatzen bada lapikoa”.

Gexoa eguerdian, beti lez igon zan tellatura, ta, goiko gallurretik beko barrena begizatuz oyu egin : “Amabiak dira oraintxe ta... gaur eztogu yaurtiko buskentzik lapikora, bijili-eguna da-ta !”.

Ta ondoren, taka-taka yatzi zan eskillarak-bera.

\* \* \*

Erreka bateko zurrunbilloak bere inguru guztiak beraganduten dauzan lez beragandu nindun “Kirikiño”k amabi urteko mutikoa nintzanean. 1.913'gn. urtea zan.

Euskeldun nintzan arren, izkuntz-maitasuna lo egoan nere barrenean, ta “Kirikiño”k, bere eguneroko euskal-yardun alayaren bitartez itxar-azi eustan. Bai pozik irakurten nebazala aren erri-esakerak !

Arrezkero, egunero, maitaleak maitea itxaro oi daun lez itxaroten neban aren “Euzkal-Atala”. Ta ezagutu bage, maitatzen asi nintzan.

Amazortzi urte nebazanean, ezagutu nai-ta, bere landolara yoan nintzan, apurtxo bat lotsati, bere irakurle nintzanezko “titulo” utsakin. Ark egin eustan arrerea ! Besarkada ta guztiko arrera maitea. Ta ala be, len baño lotsatuago lotu nintzan. “Kirikiño” ez bai zan beste edozein gizonen tankerakua. Apostolu baten antza eban eta zan.

Aretxa lez sendo ta lerden. Bizar politez oso serioa. Betaurreko biribillen ordez, ilgoran illargi erdiak izaten daben irudikoak eroazan. Gure korbatearen lekuan, lazo bat txori eginda. Soñez, yakituriz, izakeraz, bere bizikoa zan. Lotsatuko ez zan ba amazortzi urteko mutiko ez-yakiña alako apostolu baten aurrean !

Baña laster uxatu eustazan kezak eta lotsak, bere yardun atsegingarriarekin. Irakurten ikasi baneban, idazten be ikasi bear nebala esan eustan, errezago zala-ta. Adorez bete nindun eta zirriborro batzuk egiten asteko

esan, berak orraztuko eustazala-ta. Bakotxak berak aldauan neurrian alegindu ezkerro, Euskera berpiztuko genula.

Olantxe asi nintzan ta berari eskerrak nozu gaur nagan idazle apurtxoa. Badakit, nirekin egin ebana beste eundazekin be egin ebala, beste ainbeste idazle sortuaz.

Iñoiz ausnartu dot, bera izan ezpazan, bear bada, gure izkuntzari buruz ardurabako bat izango nintzala.

Eskerrak egin bearrean naz ba gure irakasle izan zan “Kirikiño” maiteari. Ain yakintsu ta apal izan zan yaun agurgarriari. Basseritarrari.

Bai, Mañari’ko baserritarra. Bein, bere azalpen sakon eta yakintsuak entzuten egozan batzuk esan ei eben :

—Yaun au beserritarra dala nok esango leuke?

—Baita izan be —erantzun ei eutsen “Kirikiñok—. Begiratuko daustazuen alde guztietatik baserritarra naz ni : Baserritar utsa. Baserritarrak izan ziran nere gurasoen gurasoak, belaunik belaun. Eta baserrian jayo nintzan neu be. Beraz baserritar izate au eztot nik iñun ez iñoz aztuko.

Guk be eztaigun aztu “Kirikiño” nor izan zan, ta gaur, bere jayotzako eungarren urteurrenean, goazan Mañari’ra geure omena eskintzera.

Ta nere aldetik, zirriborro oneik izan bitez “Kirikiño”ren oroitzapena biotzean daroadala azaltzeko.